



AURREZ AURRE: JUAN MARI MENDIZABAL, EKB EUSKARARENDAKO TOKIA ESKATUZ

# Arrasate

1996ko  
azaroak 22  
341. zenb.



# ntsua.



# msoa

*Azken egunotan hainbat arrasatear epaituta.  
Intsumisioaren gaia berpiztu egin da herrian.*

**IKUSPEGIA: AITOR OROBENGOA • 30 GALDERATAN: JESUS LARRAÑAGA  
KIROLA: MOISES CRUZ • IRITZIA: MILA LARRAÑAGA**



**Zeramika  
erakusketa  
eta salmenta**

Uribarri Etorbidea, 22-B  
Tel.: 79 81 80 • Faxa: 79 81 80  
ARRASATE



## **VENTANAS SAN MIGUEL**

**Ventanas San Miguelekin...  
Denean irabaziko duzu.**

**Erosotasunean irabaziko duzu.**

**Aurrezpenean eta energian  
irabaziko duzu.**

**Isolamenduan irabaziko duzu.**

**Konfortean irabaziko duzu.**

**Iturriotz, 24  
ARRASATE  
Tel.: 79 78 10**



*Etonni guera!  
Denean irabaziko duzu!*

# Mondragoe Unibertsitatea

**M**ondragoe Unibertsitateko proiektuak arrakasta izango balu, denok beronen onuradun izango ginatke.

Lehenik bailarako neska-mutilek ikasketak etxetik hurbil burutzeko aukera izango dute Unibertsitatea bere ikasketa sailak hedatuz eta aberastuz doan neurrian; Heziketa iraunkorrean ere.

Mondragoe Unibertsitatea bailarako etorkizuna prestatzeko tresna paregabea izan daitekeela esatera ausartzen naiz. Iritzi horri eusteko, Willi Brandt-eren hitzak ekarri nahi nituzke Alemaniaren garapen ekonomikoaren oinarritzko euskarriak zeintzuk izan ziren agertzen zuenean: batetik biztanle arruntenak ere eskolaurrera joateko aukera izatea; bestetik,



Aitor Orengoa

gazteei kalitatezko unibertsitatera iristekoa.

Gure gizon-emakumeen lanean, prestakuntzan eta sormenean datza Deba Garaiko baliabide estrategiko nagusia. Arlo horietan, Mondragoe Unibertsitatea tresna paregabea izan liteke.

Gure herriaren izena erabiliko badu ere, proiektuan parte hartuko duten ikastetxeen banaketa geografikoak (Arrasate, Eskoriatza, Oñati) garbi erakusten du Deba Garaia osoa ikutuko duen proiektua izango dela Unibertsitate berriarena.

**“Unibertsitatea merkatalgintzako iharduera ekonomikoaren suspertzaille eta motore bihur daiteke”**

Eragin hori, beste alor askotara luzatuko da, zerbitzugintzan esate batera. Gaur egun Eskola Politeknikoaren inguruan dabilzan ikasleek eragindako gastoreen lekukotasunak erakusten duen bezala, irakaslego

kopuruak gorantza egingo duen neurrian Unibertsitatea merkatalgintzako iharduera ekonomikoaren suspertzaille eta motore bihur daiteke.

Etxebizitza alokairuetan, denda nahiz tabernetan emango den iharduera ekonomikoaz gain, Unibertsitate batek bere inguruan behar dituen zerbitzuak erabat zabalak direnez, zerbitzu eta merkatalgintza mota berrien motore bihur daiteke, ikasleendako jantokiak, egoitzak, ikasketa osatzaileak eta antzerako zerbitzuen bultzatzaile gertatuko delarik.

Mondragoe Unibertsitatearen erroka ez zaie bakarrik proiektuari bultzatzen dioten irakasleei eta arduradunei luzatuko, merkatalgintza eta zerbitzugintzak hurbiletik jarraitu beharko du.

Unibertsitateak gure lurralde honetan sortu dezakeen onura amestetik egi bihurtzera iritsi dadin, denon laguntza beharrezko da; bereziki instituzio publikoetako arreta, begira-kunea eta laguntza. ■

**ARKO**  
ARRASATE  
KOMUNIKABIDEAK

ARRASATE PRESS  
**Argitaratzailea:** ARKO (Arrasate Komunikabideak) Azoka kalea, 1 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa) Tfnoa: 77 05 65. Faxa: 77 09 40

**Laguntzailea:** Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Bernardo Kortabarría. **Kazetariak:** Maria Agirre, Itxaro Zubillaga, Maider Egues. **Publizitatea:** Alberto Garro, Kaitlin Allende (Tfnoa: 77 08 15). **Administrazioa:** Ikeme Altube (Tfnoa: 77 08 15). **Diseinua:** Golo Arana. **Kolaboratzaileak:** Ander Etxeberria, Marta del Campo, Iban del Campo, Itxaro Artola, Rosa Mondragon, Bixente Azkarate, Joxerra Agirreurreta, Juan Luis Azkarate, Aitor Orengoa, Mikel Irizar, Udaleko Gazteria Saila, ASA taldea, Sabin Arrieta, Eneko Allende, Besalde M. E., Karmelo Unibaren, Fidel Berezibar, Bixente Pagaoga, Amaia Jauregi-Arraburu, Juan Bautista Agoria, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Xabier Letona, Karmelo Perez, Kopti, Jon Ozaeta. **Banaketa arduraduna:** Jasone Mendizabal-AED. (Tfnoa: 77 12 28). © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.200. **Logo-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen atzizkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.

**ARRASATE PRESS** paper birziklatuan egiten da.  
**Azala:** Golo Arana.

Arrasateko Udaleren laguntza  
 Gipuzkoako Foru Auzidaren laguntza  
 Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza

## 341. zenbaki honetan

1996ko azaroaren 22an

Asteko agenda.....	<b>4/5</b>	Orain eta hemen .....	<b>10/12</b>	Kulturaren txokoa.....	<b>26/27</b>
Irakurlea idazle .....	<b>6</b>	Txutxumutxuak.....	<b>14/15</b>	Azoka plaza .....	<b>28/29</b>
Inketa.....	<b>7</b>	Asteko gaia .....	<b>17/19</b>	Denbora pasa .....	<b>32</b>
Astearen erreposoa.....	<b>9</b>	Kirolak jokoan.....	<b>20/23</b>	Ikusi eta entzun .....	<b>33</b>

### Ikuspegia

**Aitor Orengoa..... 3**

Euren ikuspuntutik

**Mila Larrañaga..... 8**

Hogeita hamar galderatan

**Jesus Larrañaga..... 30**

Aurrez aurre

**Juan Mari Mendizabal..... 24/25**

Asteko gaia

**Soldadutzara?**

**Ez eskerrik asko! ..... 17/19**



Jon Gomez, Jabier Arkonada eta Xabier Atxa insumisoak.

# 22

ostirala

■ **STA. ZEILIA EGUNA**  
Musikarien zaindaria

■ **ZINEA**  
*A Wong Foo, gracias por todo* Alai Zineman 7etan eta 10etan.

■ **PROIEKZIOA**  
Murruxiko Mendi Ekarteak antolatutako Mendi Astearen barruan, "Izotz eskalada" Couloir del Diamante Manolo Sanchezen proiektzioa gaueko 10etan Zaraia zinemaren.

■ **IKUSENTZUNEZKO EMANALDIA**  
J. Ugaldereen "25 igoera Alpeetan" ikusentzunezko emanaldia Aita Menni ospitalean 5etan.

# 23

larunbata

■ **ZINEA**  
*Jovenes y Brujas* Alai zineman 5etan, 7.30etan eta 10.15etan.



■ **MENDI BIZIKLETA MARI-TXA**  
II. Mendi Bizikleta Mari-txa Aretxabaleko Murruxikoren lokaletik irtenda goizeko 9etan.

■ **TXAKUR TRINEOAK**  
Aretxabaletan arratsaldeko 4etan.

■ **KONTZERTUA**  
Eskoriatzako Musika Eskolako bandaren kontzertua San Pedro elizan gaueko 9.30etan.

■ **ANTZERKIA**  
Hies-Ekimenak antolatuta, Tunantes Del Norte taldearen "So Bitxo" antzezlanaren arratsaldeko 7etan Eskoriatzako frontoian.

# 24

igandea

■ **ZINEA**  
*Jovenes y Brujas* Alai zineman 5etan, 7.30etan eta 10.15etan.

■ **ENKARTELADA**  
Amnistiaren aldeko Bartzordeak antolatuta presoaren eskubideen aldeko enkartelada Sebero Altuben goizeko 12etatik 7etara.

■ **ANTZERKIA**  
Txatxilipurdiko Antzerki Tailerreko gazteen "Hau da gaztaroa!" antzezlanaren arratsaldeko 6etan Amaia antzokian. Sarrera 300 pta.

■ **ERAKUSKETA**  
Perretxiko, sendabelar, fosil eta mineral erakusketa goizeko 10etatik aurrera Eskoriatzako plazan.

# 26

asteartea

■ **ZINEA**  
*Jovenes y Brujas* Alai Zineman 7 eta 10etan. Ikuslearen eguna.

■ **KAFE TERTULIA**  
"Personas, mujeres cuidadoras" gaia aztergai Famili eta Gizarte Hezkuntzarako zentruan arratsaldeko 4etan. Hizlaria Begoña Fances gizar-te laguntzailea.

# 27

asteazkena

■ **HITZALDIA**  
"Arrasate etorkizunean, 2010" gaiaren inguruan hitzaldia Uribarriko jubilatuetan etxean arratsaldeko 5etan. Hizlaria: J. Zubizarreta.

■ **HITZALDIA**  
Ekin emakume taldeak antolatuta, "Hondarribia eta Irungo alardeen inguruko gertaerak: emakumeok badugu parte hartzeko eskubidea?" gaiaren inguruan hitzaldia arratsaldeko 6etan AEDko lokalean.

■ **ITOITZ BIZIRIK**  
"Itoitz Bizirik" gaiaren inguruan hitzaldia eta bideo emanaldia Eskola Politekniko areto nagusian arratsaldeko 6.45etan. Hizlariak: Itoitzekiko solidarioak taldeko kideak.

# 25

astelehena

■ **ZINEA**  
*Jovenes y Brujas* Alai Zineman 7 eta 10etan.

## ■ PIANO EMANALDIA

Arkaitz Mendoza 13 urteko donostiarraren piano emanaldia arratsaldeko 8etan Arrasate Musikalen.

## ■ PROIEKZIOA

"Turkiatik Birmaniara bizikletaz" proiektzioa arratsaldeko 7.30etan Aretxabaletako Zeraia zineman.

## ■ IKASTAROA

Famili eta Gizarte Hezketarako zentruak ileapaindegi eta estetika ikastaroa antolatu du. Iraupena 50 ordu. Izenematea azaroaren 28ra arte. Ikastaroa abenduaren 2an hasiko da.

## ■ MUS TXAPELKETA

Bihar, azaroak 23, Mus Txapelketa izango da Irati tabernan arratsaldeko 4etan. Izenemateak txapelketa hasi baino 10 minutu lehenago 2000 pta.

## ■ ERAKUSKETA

Azaroaren 25etik abenduaren 1era arte, "El arte de la escritura" lehiaketako lanak erakusgai jarriko dira Harresi Aretoan. Ordutegia: Egunero 6etatik 8etara, larunbat eta jaiegunetan 12etatik 2etara eta 6etatik 8etara.

## ■ LIZARDI

Zabalik jarraitzen du olerkari euskaldunari buruzko erakusketak Monterronen. Bertan bere poesiak, artikulak, margoak etabar ikus daitezke, baita bera bizi izan zeneko garaiko mugimendu euskaltzale eta kulturzalearen inguruko informazioa ere. Erakusketa 27ra arte izango da zabalik.

## ■ GAZTETXOEN ANTZERKIA

Igandean 6etan Txatxilipurdiren Txatxiartistak tailerretan aritzen den Eskenha 4 antzerki tailerrek "Hau da gaztaroa hau" antzezlan eskeiniko du Amaia antzokian. Gaztetxo hauek Unai Torresen zuzendaritzapean aritu dira antzerkia ikasten. Igandeko obran 13-14 urteko gazteen egoera soziala isladatzen da: ikasketak, familia, lagunak, etorkizunaren kezka, beraienganaiko gizarte krudela... Sarrera 300 pta.

# 28 osteguna

## ■ ZINEA

*Bwana* Alai zineman 7 eta 9.30etan.

## ■ ZINE KLUBA

*Malena es un nombre de Tango* Amaia Antzokian 9.30etan. Sarrera 400 pta., gazte txartelarekin 350.

## ■ ARIZMENDIARRETARI BURUZKO HITZALDIA

Gizabidea fundazioak antolatuta, Don Jose Maria Arizmendarretaren oroitzapenean "La idea cooperativa: del servicio a la comunidad, a su nueva creación" hitzaldia. Hizlaria: Joxe Azurmendi doktorea.

## ■ HITZALDIA

Mendi Federakuntzaren laguntzarekin "Segurtasuna mendian" hitzaldia arratsaldeko 7.30etan Aretxabaletako udaletxeko ganbaran.



## ARIZMENDIARRETAREN OROITZAPENEAN

Gizabidea fundazioak antolatuta, Don Jose Maria Arizmendarretaren oroitzapenean, hura hil zela 20 urte betetzen direnean, hitzaldi interesgarria izango da azaroaren 28an Eskola Politeknikoko ekitaldi aretoan. Joxe Azurmendi doktorea "La idea cooperativa: del servicio a la comunidad, a su nueva creación" gaiaren inguruan berba egingo du. Edonor joan daiteke hitzaldia entzuterako.

**Azaroaren 28an.  
Eskola Politeknikoan.  
Arratsaldeko 6.30etan.**

## GUARDIAKO FARMAZIAK

- Ostirala 22**  
• Egunez eta gauzez: Corcuera, Musakola
- Larunbata 23**  
• Egunez eta gauzez: Irizar, Erguin.
- Igandea 24**  
• Egunez eta gauzez: Amezua, Santamaina.
- Astelehena 25**  
• Egunez eta gauzez: Ruiz, Maala.
- Asteartea 26**  
• Egunez eta gauzez: Morales, San Andres.
- Asteazkena 27**  
• Egunez eta gauzez: Azkoaga, Ferrerías.
- Osteguna 28**  
• Egunez eta gauzez: Español, Iturriotz.

## BEHARREZKO TELEFONOAK

- Eritetxeak**  
Arrasateko Eskualde-Ospit. . . . . 79 53 00  
Igalatorioa . . . . . 79 05 00  
Santa Agedako Ospitalea  
(gizonak) . . . . . 79 39 00  
(emakumeak) . . . . . 79 44 11  
Buru osasunerako zentrua . . . . . 79 90 11
- Gurutze Gorria**  
Bergara . . . . . 76 55 76
- DYA**  
Antzuola . . . . . 76 62 91
- Anbulatorioak**  
Arrasate (Larrialdiak) . . . . . 79 13 57  
• Txanda hartzeko: medikuntza  
orokorra eta pediatria . . . . . 77 03 46  
• Espezialitateak . . . . . 77 03 78  
. . . . . 77 12 64  
Oñati . . . . . 78 08 52  
Eskoriatza . . . . . 79 98 58  
Aretxabaleta . . . . . 79 74 58  
Aramaio . . . . . (945) 45 51 76
- Anbulantziak**  
Gipuzkoako ambulanziaz . . . . . 45 87 44
- Udaltzaingoa**  
Oñati . . . . . 78 04 11  
Bergara . . . . . 76 14 69  
Arrasate . . . . . 79 14 39  
Aretxabaleta . . . . . 79 10 52  
Eskoriatza . . . . . 088
- Ertzaintza**  
Arrasate . . . . . 79 71 99
- Suhiltzaileak**  
Udal taldea . . . . . 79 09 00  
Udal taldeko suhiltzaile burua . . . . . 79 20 72  
Zubillagako Eskualde-Parkea . . . . . 088
- Matxurak**  
Urak (udal zerbitzua) . . . . . 79 09 00  
Elektrizitatea (Iberduero) . . . . . 12 01 62  
Gasa . . . . . 900 40 05 23  
. . . . . 79 78 44  
. . . . . 79 76 78
- Garraioak**  
Taxiak . . . . . 79 12 22  
PESA . . . . . 79 14 19
- Hirugarren adinekoendako zentruak**  
Iturbide Egoitza . . . . . 79 72 11  
Abaroa jubilatuen egoitza . . . . . 79 81 57
- Kontsumitzailearendako informazioa**  
KIUB-OMIC . . . . . 79 51 55
- Monterongo liburutegia**  
Monterron . . . . . 77 01 05
- Irratia**  
Arrasate Irratia . . . . . 79 58 77

## ARRAZOI UGARI DAGO

Leerro hauek idazten ari naizen unean ez nago gose greban, baina zuek irakurri orduko indarrak ahultzen joango zaizkit. Orduan ez dut idazteko gogorrik izaten eta horregatik aurretik idazten dut.

Zergatik gose greba? Ez dut ukituko zuzenki arlo politikoa, bestela ez ginatete espetxean egon behar, indarrez kendu digutena indarrez berreskuratzen saiatu besterik ez baikara egin.

Nire esperientzia eta egoera azalduko dut. Orain bederatzirte emaztearekin eta semearekin Bildoze (Zuberoa) nire etxean nengoela atxilotu ninduten jendar-mak. Ordu batzuetara guardia zibilen eskuetan nengoan. Ohiko komisaria egunak egin ondoren Madrilgo espetxe batean bukatu nuen; gero, Alcala, Herrera eta azkenean Murtzia.

Zazpi urte daramatzat hemen, eta urte hauetan semearekin egon naizen ordu guztiak batera jarritz gero, bi egunera ere ez litzateke iritsiko. Lau urterekin etorri zen lehenengoz, "Aita Murtzia urrrruuuun dago" esan zidan. Bere beharra nuen eta berak nirea, baina urtean hiru aldiz etorrita nahiko eta gehiegi zuen.

Nire senideak Zuberoan eta Arrasaten bizi badira, zer egiten dut nik Murtzian? Arrazoiak sinpleak eta maltzurak dira: gure eta seni-

deen sentimenduekin jolas-tendabiltza. Senideengandik eta lagunengandik urrundugintuzten damu gintezen, gure herritik urrun eta isolaturik gehiago saka gintzaketan beren metodo demokratikoak erabiliz: jipoiak eta tentsioa. Hamar urte pasa direnean espetxeko atean izaten ditugu lagun eta senideak, bero edo hotza egin, elurra edo euria erori. Hau guztia burutu zutenek ez dute ulertzen nola egin duten eta egiten ari diren horrelako sakrifizioa. Herriaren kementa gutxietsi dute saside-mokrata hauek.

Hala ere, neurri batean helburua bete dute, bai gu bai senideek nekatuta gaude, baina hortik etsizera bide oso luzea dago.

Urte hauetan borroka asko burutu ditugu. Orain lagunekin batera gose greban nago nire semearekin gehiago egon ahal izateko, dirua eta bizia arriskuan jarritz senideak eta lagunak bidean hainbeste denbora ez egiteko, euskal herri-tarra izanik Euskal Herrian bizitzeko eskubidea dudalako... Gose greba kapritxo bat dela uste duena oso oker dago. Gose grebak gorrotatu egiten ditu-

gu, baina espetxean borroka motak mugatuak dira eta egoerak horretara bultzatzen gaitu.

Semeak askotan egiten didan galdera batekin amaituko dut. "Aita, etxera noiz etorriko zara?". "Begira, Artzen, -esaten diot nik- pozik joango ginatete, baina ezin dugu etsi gatazkari irtenbide duin eta onargarri bat eman arte. Ez dugu nahi gu pasatzen ari garena zuk edo zure moduko beste batzuk pasatzea; guk ez badiogu eusten, lehenago edo beranduago zuek ekingo diozue berriz; aukeran, hobe guk egitea. Bitartean zuk asko ikasi eta prestatu ondo arlo guztietan, egun batean denok batera lana gogor egiteko hainbeste maite dugun herria aurrera ateratzeko".

Kalean zaudetenoi bi hitz besterik ez: eutsi goiari eta segi gogor! Aurrera Bolie!

**Enrike Letona**

Murtziako espetxetik  
(Erredakzioan laburtua)

**UGARAN jatetxea**  
Garagartza auzoa  
Tfnoa: 79 76 58  
ARRASATE

**Memesa**  
79 42 22


**ARTEA**  
Eskulanak eta lientzoak  
ENMARKAZIOAK  
Laminak, Izpiluak,  
Margoak  
Ferrerías, 11 Tel.: 77 10 95  
ARRASATE

# Sexualitate zerbitzua beharrezkoa da?



**Alberto Ruiz de Azua**  
Jubilatua  
(66 urte)

Bai, gazteei erakusteko bada ondo dago, batzutan ez dute jakiten eta. Nik nire seme-ei gomendatuko nieke hara joan eta informa daitezela. Jakina, nire aldetik erakusten ere saiaturiko nintzateke.



**Jose Miguel Garai**  
Langilea  
(43 urte)

Bai, beharrezkoa da eta gazteak bertara informatzera joan beharko liratekeela uste dut. Nire semeek etxean nahikoa informazio dutela uste dut baina animatuko nituzke zerbitzu horretara joaten ere.



**Txaro Gallego**  
Ikaslea  
(20 urte)

Bai. Nik behintzat erabiliko nuke, oso ideia ona iruditzen zait.



**Rosi Cid**  
Etxekoandrea  
(36 urte)

Bai. Etxean ere informazioa eman behar zaie seme-alabei baina sekula ez dago soberan horrelako zerbitzu bat, gainera, bertakoek hobeto informatzen jakingo dute, ez?



**Amaia Altube**  
Langilea  
(28 urte)

Oso ideia ona iruditzen zait, baina egia esan ez dakit gazteak hara joango diren, akaso lotsatu egingo dira. Niri dagokidanez, joango nintzateke.



**Idoia Etxagibel**  
Langilea  
(30 urte)

Bai, bazegoen beharra. Gazteak batzutan gutxi eta gaizki informatuta daude eta ona da horrelako zerbitzu bat egotea. Beharra izango banu ni ere joango nintzateke informatzera.




**Jose Cortes**  
Jubilatua  
(64 urte)

Bai, baina ez dut uste gazteak hara joango direnik. Sexu kontuak euren lagunen artean hitzegiten jarraituko dute, horrelako lekuetara joatea ez zaie gustatzen eta. Dena den, nik joatea gomendatuko nieke.




**Jesus Calvo**  
Langilea  
(29 urte)

Oso beharrezkoa da horrelako zerbitzu bat. Gazte batzuk erabiliko dute baina beste batzuk, gehienek, ez. Beharra banu, joango nintzateke informazioa jasotzera.



**Zure OPEL banatzailea ARRASATEN, zergatik joan urrunago?**

**OPEL** 

**TAKOLO AUTOAK**

Araba Etorbidea, 3 Eskatu Pabilioia Tel.: 79 05 86 ARRASATE

USTEAK USTE

Carneta ala karneta?

Aspalditik agindua zuten: laister egongo da herrian bertan nortasun agiria berritzeko aukera. Nagi samarrak izan, eta horren berri genuen asko, Eibarrera joan beharrean, lasai lasai ibili gara poltsikoan kadukatutako agiritxoak genuela.

Azkenean iritsi da baina agindutako aukera, eta normala denez tropel handia astelehenean Udaletxe aurrean, jende ilada luzeak. Hori ikusita, bigarren egunerako utzi nik neuk eginbearra, iladak txikiagoak izango zirelakoan. Baita izan ere. Hortaz, lagun bat eta biok, martizenean jarri ginen iladan. 20ko tropela, arin-arin egia esan.

Mahaitxora iritsi eta neurea di-da batean eginda, abenduan emango didatela pasatzeko abixua. Lagunak ez du ezer egin, AEDko abizenak euskaratzeko kanpainan parte hartu zuen eta epaitegiko agiria eskatu diote. Hara doa zuzenean agiriaren bila. Epaitegian 9 hilabete beharko ei dituzte Madrilen dagoen agiria eskuratzeko. Pendiente dauden transferentzien arteko bat izango da euskarazko abizenena? PP-EAJ akordioan adostuko zuten?

Beñardo Cortabarría



Ez diegu utziko kaka goitik behera egiten

Mila Larrañaga

Kooperatibismoaren 50 urteek, behar bada Arrasaten hasi zen sistemaren eboluzioaren ideia amaitua izateko aukerarik ez du ematen, baina gauza askotarako ematen du. Adibidez, hasiera batean planteaturiko ideia batzuk indarrean darraitte. Gu ez gara izango gizakiari balorea eman eta beronen interesei aspiratua aktibitate ekonomikoa egotea txarra denik, ezta kaltetuen egoera hobetzeko autolaguntza edo giza sailean gizalaguntza justua... gauzatzea txarra kontsideratuko dugunak.

Baina kooperatibismoak nahiz eta kapitalismoa eraldatzeko asmoarekin jai, helburu horretan porrot egin duela onartu behar dugu, hau da, kapitalismoaren eredu alternatiboa izatea ez duela lortu. Edozein modutan, giza kondizio duinak praktikan jartzearen borrokatzen dutenak ez lituzkete goian aipaturiko baloreek ahaztu behar.

Puntu honetan MCC kooperatibismoaren imajina erabiliz, autoesplotazioa ezarri nahian dabilelako, aurka egiten diogu. Fagor eta MCCren arteko enfrontamenduak Ikusi gaian, enpresa "parte har-

tzaileak" eraikitzeari ezarri nahi dieten azelerazioa (Vaillant, IIT, Mc Lean Argentinan, Egipton, Marokon...). Hotzgaileen planta bakarrekin gelditzearen Edesa alde batera uztearen grina, Fagor Elektratresnako sozioen soldata izoztea, paga extremen ordaintze ez eta MCCri finantzaketa eskatzen dioten enpresei urteko lan orduen igotzea, adierazgarri izan daiteke.

Atal hauetako gai askok tratamendu berezia behar dute. Baina, gaur, Fagor talderako %4ko soldaten izozteari buruz, bi urterako Fagor Elektratresnen interesen kapitalizaziori edo eta ordain tartea ez ordaintzeari buruz ari-tuko gara.

Kooperatibismoaren lehen helburu edo ideiak fidagarri bezala harturik, kooperatibaren barnean nahiz herrian, hots, gure herrian solidaritate justua planteatzea

beharrezkoa ikusten dugu.

Irabaziaz daudenean ordain tartea arabera gehien irabazten dutenak portzentai handiagoa, eta gutxi kobratzen dutenek portzentai txikiagoa jasotzen duten moduan, beraiek diotenaren arabera jasaten ari garen krisi garaian, diru-arketara gehien irabazten dutenek gehiago aportatu beharko lukete. Barne solidaritate neurri bat da.

Baina solidaritatea, kooperatibismoa finkatuta dagoen ingurune fisikora zabaldu behar du. Langile finko, langabetu, noiz-behinkako langileen artean gertatzen diren ezberdintasun handiak kontuan izan gabe, inguruari aipamena egitea ezinezkoa da. Gaur egun kooperatibetan gorantza dihoan noiz-behinkako langileendako, gure arautegian eskubideak batzen eta barneratzen joan behar dugu. Kooperatiba guztientzako lan banaketa borondatezkoari buruzko plan konkretu bat planteatzea ere beharrezkoa da.

Hauek eztabaidatu beharrezko proposamenak dira. Behar bada, etengabeki kaka burutik behera egiten eragotziko luketen neurriak lirakeke.

Mila Larrañaga, Lankideak-eko partaidea da

“Kooperatibismoak, kapitalismoa eraldatzeko asmoz jaioren, porrot egin du”



astea bi hitzetan

■ **Nortasun agiria berritu**

Astelehenean hasi ziren Arrasaten nortasun agiriak berritzen, eta jende asko hurbildu zen Udaletxera agiri berria egitera. Jendea goizean-goizean joan zen Udaletxera, eta ondorioz, une batzuetan jende ilada nahiko luzeak eratu ziren.

■ **Intsumisioaren aldeko ekintzak**

Joan den ostegunean Irakasle Eskolako 60 ikaslekanpin dendak jarri zituzten eskola kanpoan, eta hantxe egon ziren akanpatuta hurrengo egunera arte. Intsumisioaren alde eta ejerziptoaren aurka azaltzea izan zen akanpadaren helburua.

Larunbat iluntzean, bestalde, intsumisioaren alde eta

soldadutzaren aurka Arrasaten egin zen manifestazioan parte hartu zuten hainbat antimilitaristek. Garibaira heldu eta errepidea moztean Ertzantzak irten bazuen ere, istilurik gabe eta txalo artean amaitu zen manifestazioa.

■ **AHTren aurkako bilera**

Euskal Herriko toki desberdinetatik etorritako jendea bildu zen larunbatean gaztetxean. Abiadura Handiko Trenaren inguruan hitzegiteko. Tren horren aurka dauden lagunek aurrera begira zein ekintza antolatu, eta azkenaldiko berriak komentatu zituzten. Jose Antonio Maturana, Jaurlaritzako Herrilan eta Garraio sailburuak, esan du, trenbi-

dea eraikitzeko lanak 99an hasiko direla eta lehen tramoaak Arkaute eta Aramaio lotuko dituela. Euskal Y-aren aurka daudenen ustez, AHTak ez du garapenik ekarriko eta ingurugiroari kalte handia egingo dio.

■ **LABen enkartelada**

Cartonajes Esmako zuzendaritzak LAB sindikatuan afiliatuta dagoen langile bat kaleratzeko prozesua ireki duela eta, LAB sindikatuko hainbat lagunek enkartelada egin zuen asteazkenean Esmako gerentearen etxe aurrean. Uribe auzoan egin zen enkarteladan, langilea kaleratzearen aurkako ohiuak entzun ziren. Bestalde, langilea berriro hartzea eskatu zuten.



*“Erdara aspaldi errotu zen gure lantegietan, eta orain denok dugu gure egitekoa. Horretarako sindikatuen beharra dugu, baita administrazio eta enpresariena ere, baina ezin dugu ahaztu langileek ere badutela non jardun. Sindikatuei dagokizue zuen aldarrikapenen artean, langileak euskaraz lan egiteko duten eskubidea aldarrikatzea”.*



**ESTER APAOLAZA,**  
Argia  
1996-11-17



*“Arrasaten sarrail lantegiekin aritu ziren lanean, eta hori ahultzen hasitakoan orduan beharrezkoak ziren produktuak egiten hasi ziren: garai hartan etxebizitzaren sektoreak gora egin zuen eta Arrasaten hozkailuak egiten hasi ziren. Ez zegoela makina erremintarik? Makina erremintak egitera. Teknologia berrira primeran moldatu ziren eta Eibarren hirugarren errekonbertsioari aurre egin ez dioten bitartean, Arrasaten alderantzizkoa gertatu da eta momentu honetan gorantz ez baldin badoa, mantentzen ari da”.*

**KARMELO URDANGARIN**  
Argia  
1996-11-17



**PLATAFORMA BAJUKO AUTOBUSAK**

Desak plataforma bajuko hiru autobus aurkeztu zituen ostiralean. Plataformen bidez gurgildun aukietan dabilzan ezindu fisikoei autobusera igo ahal izango dute. Autobus bereziek Eibar-Eskoriatza ibilbidea egingo dute. Autobus bakoitzak 25 milioi baino gehiago balio du.

**Nerea Bengoa Fdez. de Campinun osteopata**

Zirugia eta medikuntzan lizentziatua GREMMO-en osteopatian diplomatua

Bizkarreko minak, sorbalda, lunbalgiak, zerbikalgiak, zefaleak, bertigoak...

**Kontsulta Arrasaten, txanda hartzeko deitu 989-58 66 89 tel. mugikorrera (Astelehenetik ostiralera, 9:00etatik- 13:00-ra)**



## Errepidean akatsak

Garagartzatik Arabaraino berritu duten errepidean hainbat akats topatu du Udalak, eta horregatik, horiek zuzentzea eskatu dio Foru Aldundiari. Argiterian eta espaloietan aurkitu dira akatsak besteak beste. Bide batez, goi pasabidea botatzea eskatuko dio Diputazioari. Arrasateko Udalaren arabera, hasierako proiektuan idatzita dator pasabide hori bota eta berria egingo dela. Diputazioak berriz, ez du berdina uste.

### Jaiotzak

• Ane Otaduy Apaolaza. Azaroaren 16an.

### Ezkontzak

• Jose Maria Villamor Amaueles eta Ana Belen Obregon Romero. Azaroaren 9an. Zibilez.

• Gregorio Urrutia Madinabeitia eta Miren Atxa Askasibar. 9an. Zibilez.

### Hildakoak

• Maria Bereziabar Otaduy. Urriaren 31n. 81 urte.

• Angel Balanzategi Arizmendia. Azaroaren 1ean. 74 urte.

• Marcela Lasaga Zuazubiskar. 10ean. 89 urte.

• Claudio Pagaldai Leibar. 10ean. 68 urte.

# Senideak arduratuta Josu Arkauzen egoeraren aurrean

Urtarrilean polizia espainiarraren esku utz dezaketela eta, larrituta agertu da Josu Arkauzen familia. Arrasatearra gaur egun Saint Maurerko kartzelan dago, eta, urtarrilean libre geratu beharko litzateke. Izan ere, estatu frantziararen ez dago bere aurkako salaketarik; eta ezta estradizio eskaerarik ere.

Antzerako beste kasu batzuetan gertatutakoa ikusita, familiakoek uste dute Josu Frantziatik kanporatu eta polizia espainiarraren esku utz dezaketela, ez epailearen esku estradizioetan bezala. "Josuk Iparraldean bizi izaten gertatzeko baldintza guztiak betetzen ditu -dio Odile Iriart, bere emazteak-, lana dauka, etxe bat Iparraldean, eta frantziar nazionalitateko emaztea eta semeak".

Arkauzen egoera dela eta, igandean, hilak 24, eguerdi-



Odile Iriart, Josu Arkauzen emaztea bere umeekin.

ko 12etatik arratsaldeko 7ak arte enkartelada egingo da Seberon; bukatutakoan, mani-

festaldia. Era berean, plenan mozioa aurkeztuko dute senideek, neurri ilegal honen aurrean Udalarri jarrera tinkoa har dezala eskatuz.

## Gose greba honen aurrean

Berriro ere egonezina nagusi da Arrasateko familia batean, Enrike Letonak gose greba berri bat hasi du.

Zaila da egoera honen aurrean gure mina eta amorrua azaltzea, urtarriletik hona preso dauden gure familiartekoak, legea betetzeko eskatuz, euren osasuna hondatzera behartzen dituzte eta. Noiz arte jarraituko dute kartzeletan hiltzen gaixotasun terminalak dituzten presoek? Zer egin behar dugu zigorraren 3/4ak bete dituzten presoak aske utz ditzaten? Orain egun batzuk legearen aurkakoa zen dispertsioa, gaur ez da horrela?

Herri honi sekula ez dio inork oparirik eman. Mugi zaitetz!

**Senideak**

## ENRIKE LETONA ASTEBETE GOSE-GREBAN

Joan den ostiralean ekin zion Enrike Letona arrasatearrak muga gabeko gose-grebari Murtziako kartzelan, beste 19 euskal presorekin batera. Giza eskubideen errespetoa, legea betetzea, eta euskal presoen izaera politikoaren onarpena aldarrikatzeko hasi zuten greba arrasatearrak.

**beatriz**  
oinetakoak  
eta poltsak

Erdiko kale, 11  
Tel.: 79 14 33  
ARRASATE

**PEUGEOT**  
Salmenta eta  
zerbitzua

**IBABE  
GARAJEA**

**MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA**

Gesalibar auzoa, z/g. Tel.: 79 99 61 • ARRASATE

**Lore**  
Lurrindegia

Olarte kalea, 10 • ARRASATE  
Tel.: 79 52 50

# Hiper Eroski zabaldua

## Hurrengo helburua: ingurua egokitzea

Hainbat agintari eta gonbidaturekin astelehenean Hiper-rra inauguratu ondoren, asteartean erosleendako ireki ziren azalera handiko supermerkatuaren ateak. Txaranga doinuarekin lagunduta zabaldu zen Hiper-rra, eta ezer oparitu ez zen arren, goizean-goiz jende mordoa bildu zen ateak noiz zabalduko zain.

Supermerkatu berria zabaldua, orain bigarren fasean egin beharreko lanei begira jarri dira Eroskiko arduradunak. Hutsik geratu den Maxia bota egingo da, eta toki horretan gasolindegia eta Hiper-rrako almatzenak irekiko dira. Horrez gain, pareko errepidean ere egingo dira berrikuntza



Roman Sodupe, Diputatu Nagusia, eta Arrasateko Alkatea izan ziren inaugurazioan besteak beste.

batzuk, eta beste zubi bat ere eraikiko da. LKSkon teknika-

riak hasita daude zubi horren proiektua garatzen, eta hilabete

batzuk barru gertu izango dutela uste da.

## Dragados-ek eta ELAk ez dute akordiorik lortu oraindik

AKEIko langileen arazoa buruz hitzegiteko, Donostiako Lan Ordezkaritzan bilera izan zuten asteartean ELAren ordezkaririk batek eta Dragados-eko beste batek. Bileran, alde bakoitzak bere planteamendua jarri zuen mahai gainean. Dragados-ekoa, langileei indemnizazioa ematearen alde azaldu zen, eta legean finkatuta datorrean baino gehixeago emateko gertu daudela esan zuen. ELAkoa, berriz, 10 langileak beste lanpostu batzuetan lanean jarraitzearen alde azaldu zen, eta Mankomunitateak gai honetan lagun dezakeela adierazi zuen. ELAren arabera, Dragados-ek hainbat iharduera du munduan, eta beraz, ez du arazorik 10 langileei lana emateko. Bestalde, AKEIn trans-

ferentzi gunea egingo denez eta hor ere langileak beharko direnez, oraingoak hartzearen alde azaldu zen ELA.

Akordiorik lortu ez bazen ere, bitartekari egin zuen delegatuak zera eskatu zien alde bakoitzari: mahaigainean jarritako planteamenduen inguruan pentsatzea, eta aurrerago beste bilera bat egitea.



AKEIko erraustegia.

## LAN ESKAINTZA

Arrasateko Udalak PEOI plaza bat hornitu nahi du behin betiko izaeraz.

Deialdia aginduko duten Oinarriak Udaletxean jaso daitezke.

Instantziak aurkezteko azken eguna abenduaren 3a, asteartea, izango da.

Arrasate, 1996ko azaroaren 20a.



ARRASATEKO UDALA

Pertsonal Saila

# Enpresaberri: beste aukera bat ideia enpresarial bat aurrera eraman nahi dutenendako


Diputazioak Enpresaberri programa hasi du probintzia osoan, eta Deba Garaian, Garapen Ekonomikorako Eskualde Agentziak hartuko du programaren ardura.

Enpresaberriren asmoa honakoa da: ideia enpresarial bat garatu nahi dutenei laguntza ematea. Arduradun batek, bailarako kasuan Garapen Agentziako teknikariak, aholkularitza eman eta bideragarritasun planak egiten lagunduko du besteak beste. Diputazioak, berriz, diruz lagunduko du programa.

Laguntza moeta hau hala ere ez da berria. Azken urte-

etan ere antzerako laguntza eskaini du Deba Garaiko Eskualde Agentziak. Koldo Azkoitiaren, agentziako arduradunaren esanetan. Enpresaberri programaren bidez, probintzia osoan dauden garapen agentziek laguntza bera emango diete ideia enpresariala aurkezten dutenei.

Azkoitiaren arabera, urtean batuz beste autoenplegurako 25-30 proiektu aurkezten dira Deba Garaiko agentzian, eta horietatik %60ak ikusten du argia. Horrez gain, pare batek proiektu sendoagoak aurkezten ei ditu, eta horietatik erdiak egiten du aurrera.



Deba garaiko Garapen agentzia arduratuko da ekimen horretaz.

## Musakolako herri ikastetxearen jantokia lizentzia barik

Musakolako herri ikastetxe jantokia lizentzia barik ireki dutela eta, lizentzia lortzen duen bitartean jantokio iharduera bertan behera uztea eskatu dio Udalak Jaurleri-

tzaren Hezkuntza Sailari.


Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza ikastetxe horretan ikasi baina Arrasatetik kanpo bizi direnek bazkaltzen dute jantoki horretan.

## Gesalibarko telebista errepetidorearekin bueltaka

Telebistako kate guztiak ikusteko Gesalibarren jarri duten errepetidoreak beharrezkoa du energia elektrikoa telebista seinalea etxe guztietara bana dezan. Hori dela eta,

Iberdrolari eskatu dio Udalak toki horretara energia eramateko lanak egitea. 1.200.000 kostako da lan hori egitea. Kate pribatu batzuk eta ATB ez dituzte Gesalibarren ikusten.

- Markoak
- Kuadro originalak
- Obra grafikoa
- Laminak
- Ispiluak



Maalako Errabala, 8 • ARRASATE • Tel.: 79 56 44



**EGUZKI GRAF**  
inprimategia



Industrialdea 1-0-4  
Telefonoa: 791844  
Faxa: 792941  
ARRASATE

**S. CARRASCAL S.L.**

**Bertan egindako:**

- Sukalde altzariak
- Armairu enpotratuak
- Trastelekurako armairuak

**Fabrikaren erakusketa**

Gipuzkoa etorbidea, 6 - 1.a  
Tel/Faxa: 79 01 82

**ARGI PLASTIC**

- PVC ETA ALUMINIOAN EGINDAKO LEIHOAK, MANPARAK...
- LANTEGITIK ZURE ETXERA ZUZENEAN

**Eska ezazu aurrekontua konpromezu barik!**

Tailerra eta bulegoa:  
Zigarrola, 1-8 pabiloia • Tel.: 77 11 30 • ARRASATE



*Sili Sili*

**Martxa eta estilo handiko erropa**

Iturriotz, 9 • ARRASATE  
Tel.: 79 81 82

# ATB



## *ARGIAk ATB saritu.*

*Argia aldizkariak Arrasate Telebista saritu du urtero ematen dituen Argia Sarietan. Gainontzeko komunikabideek albiste orokorrei garrantzia ematen dieten bitartean, ATBk herri*

*informaziorako txoko bat gorde duelako saritu da herriko telebista. Horregatik eta baita arrasatearrek ATB ikusteko ohitura dutelako. Beraz, saria arrasatear guztiona da. Zorionak!*



Elvita Renda arrasatearra izan zen Hiper Eroski berriaren lehen bezeroa. Asteartean goizeko 10etan supermerkatua zabaldu zutenean egin zituen erosketak: Bi ogi, arraultza dozena bat eta arraina, guztira 580 pezeta. Elvitak gutxien espero zuena, bera lehenengo bezeroa izango zena zen, eta gutxiago oraindik argazki kamara bat zain izango zuela argazki bat ateratzeko.

## HIPER EROSKIKO LEHEN BEZEROA



## OÑATIKO BARNETEGITIK

*EUSTATEko langile hauek euren euskara hobetzen ari dira eta horretarako Oñatiko barnetegian daude ikastaro batean parte hartzen. Joan den astean, irakaslearekin ARKOra etorri ziren herri komunikabideen inguruko informazioa jasoa eta ATBn eta Arrasate Pressen nola lan egitea den ikustera.*

Ziur ziur ez dakigu zerk eragin zuen emakume hauen barre

## A ZE BARRREGUREA!

algara: argazki kamara ote? Kontuak kontu, larunbatean Alkartetxean ardi eta buzkantz bazkaria egiteko elkartu ziren lagunak ederto pasa zuten. Begira bestela Miren Azkoaga, Karmen Garai, Estefania Garai eta Tere Garmendiaren aurpegiak.



Ahots polita dutelako, andereñoak agindu zielako edo eskolan egindako zozketa batean tokatu zitzaielako... nork daki! Kontuak kontu, San Viator ikastolako Ion Olabek, Jaione Uriartek eta Ane Mentxakak, Xabier Lizardik 1930eko uztailaren 30ean Arrasaten eman zuen hitzaldia irakurri zuten jendaurrean joan den ostira-lean Monterronen, euskal olerkariaren

## LIZARDI IRAKURTZEN

erakusketaren inagurazioan. Urduri ez zeudela esan zuten eta egia esan, serio-serio irakurri zuten 5 orriko txostena.



## IZENA

### Jose Antonio Aspiazu

Jose Antonio Aspiazuri eman diote 96ko Jose Letona Beka. Legazpiarra izan baina Oñatin bizi den gizon honek 52 urte ditu, Filosofian lizentziatua eta Antropologia gaitan doktorea da, eta Nazioarteko Lege Soziologiako Erakundean egiten du lan, Oñatin. Urtebeteko epean honako gaia aztertuko du: "Arrasate: altzairu eta armen historia". Udalak 400.000 pezetako saria emango dio.



## ZENBAKIA

### 25

Errota izan dira Arrasaten historian zehar: 8 Deba errekan, 13 Aramaio erreka ura aprobetxatuz, 3 Mietzerrekako errekatxoaren ondoan, eta 1 Epeleko ura erabiliz.

## DATA

### 1816ko azaroak 17


Santiago Elias Aranguren, Monterrongo kontea zena orduan, erahil zuten Zurgin kantoian.

Monterron leinuaren aztarnak XV. mendean aurkitzen dira. Hala ere, ez zuen konte titulorik lortuko 1689. urtera arte, Carlos II.a errege zela. Leinuak koroia alde egindako ekintzak zirela eta eman zion erregeak konte tituloa, tituloa eraman zuen lehena Juan Antonio Andikano izanik.



## 50 URTE ELKARREKIN

Dotore ezkondu ziren Isidro Romeo eta Maria Luisa Martinez orain dela 50 urte, baina urrezko eztaietan ere itxura ederra erakutsi zuen bikoteak. Joan den zapatuan urrezko eztaiak ospatu zituzten Bedoñako elizan euren sei seme alabekin, horien senar-emazteekin eta 14 ilobekin. Zorionak eta horrela jarraitu!





## AUSARTU ZAITEZ!

Abenduaren 13an, Jostunen Egunean, Kataide Jatetxean temperatura egingo da.

- 9,30etan afaria.
- Afal ostean musika.
- 2etan strip-tease.

Izena emateko deitu Kataide Jatetxera. Anima zaitez!!

Kataide poligonoa

Tel: 79 60 10 • ARRASATE

**TXATXI**

**ANTZERKI**

**GAZTEA**



ESKENHA 4 taldea

**Hau da gaztaroa hau!!!**

**AMAIA ANTZOKIAN**  
Azaroren 24an, igandea  
Arratsaldeko 6etan  
300 pta. (18 urtetik  
berakoentzat doan)

Eskenha 4 taldea  
Txatxiartistak tailerreko artista  
arrasatearrak.

Aktoresak:  
**Ainhoa Sagasta, Ane Zabala,**  
**Nagore Ipiña, Hirune P. de**  
**Villarreal, Sunahi Etxebarria,**  
**Maite Mendieta, Nerea Makazaga,**  
**Alazne R. de Munain, Garazi**  
**Mendizabal, Ane Altuna, Maitane**  
**Arizmendiarrreta, Naiara Vazquez,**  
**Nerea Atxa**

Zuzendaria:  
**Unai Torres**







**A**zkenaldian Gorka Zabaltzak, Kakitzat-eko abokatuak, ez du epaitegietatik irteten. Kakitzat talde intsumisoak batzen dituen koordinakundea da (barruan dago Arrasateko Talde Antimilitarista) eta bertako bi abokatuak, Gorkak eta Alvarok, intsumisoen defentsa egiten dute epaietan. Joan den astean, esaterako, 31 epaiketetan izan zen Zabaltza eta aste honetan 22tan egon da.

**Espainiako parlamentuak NATOn erabat sartzea onartu eta soldadutzara joateko zozketak egin direla eta, azken egunotan militarismoa pil-pilean egon da.**

**Bi arrazoi horiengatik eta astean hainbat intsumiso arrasatear epaitu dutelako, aspaldiko partez intsumisioaren gaia berpiztu egin da Arrasaten. Herrian ez dago antimilitarismoari gogor heltzen dion talderik, baina azken egunetako manifestazioek erakutsi dute intsumisioak bizirik diruela.**

Abokatuak horren arrazoia azaldu digu: "penaleko epaitegietan intsumisoen espediente asko dago, baina epaitegi horiek lehenbailehen

audientzia probintzialaren esku utzi nahi dituzte espedienteak, eta horregatik, azkenaldian intsumisioei deitu eta deitu dabiltzala.

## GERO ETA GEHIAGO

"Gazteak gero eta lehenago egiten dira intsumiso, eta gehienek ordezkoko zerbitzu sozialari baino, zerbitzu militarri egiten diete uko" dio Zabaltzak. Gazte horiendako honako zigorra gordetzen du kode penal berriak: 6 hilabeteetik 2 urtera arteko kartzela zigorra (epaileak 6koa ezartzen du eta beraz, aurrekari penalik ez duenak ez du kartzelara joan beharrik) eta 10 urtetik 14 urtera arteko inha-

# SOLDADUTZARA? Ez eskerrik asko!

bilitazioa. Inhabilitazioarekin, intsumisoak ezin du kargu edo lanpostu publikorik izan, eta hainbat laguntza ere ezin du eskuratu. Hori dela eta, zigor horrek heriotz zibila dakarrela esaten dute antimilitaristek. Zabaltzak definizio horren zentzua azaldu digu: "inhabilitazioarekin gaztea pertsona anonimo bihurtu nahi da. Horregatik, zigor berri horren aurrean beste aldean gaudenok ere estrategiaz aldatu dugu. Orain arteko joera kartzelan sartzen zituzten intsumisoei elkartasuna adieraztea izan da. Inhabilitazioarekin agintari publikoak presionatu beharko ditugu, eurek zuzentzen duten erakundeetan inhabilitazioa ez dezaten ezarri. Hori eginez agintariei ezarriko zaie inhabilitazioa, demokratikoki herritarrak aukeratuakoei, eta horrek herritarrak mugitu araziko ditu. Estrategia horrekin ikusiko dugu benetan zeintzuk dauden intsumisoen alde".

### ARMADA PROFESIONALA

PPK agindu du urte batzuk barru armada profesionala eratuko dutela, eta horrela, soldadutzara joatea norberak aukeratu beharreko zerbait izango da. Kakitzat-eko abokatuaren ustez, kasu horretan intsumisoen epaiak alde batera geratuko dira, eta amnistia orokor bat eman beharko dute. Baina horrek ez ei du militarismoaren aurkako jarrerarekin amaituko. "Gastu militarra handitu egingo da eta horren aurka beti egongo dira antimilitaristak. Bestalde, beti egongo gara E.Haren independentzia ukatzen duen armadaren kontra". ■

Maria Agirre

## JON ETXEBERRIA



**K**ode penal berria indarrean sartu zenetik, lehenengo Bergarako epaitegira, eta ondoren penaleko epaitegira joan behar dute intsumisoeak.

Otsaila inguruan Bergarako epaitegira deitu zuten Jon Etxeberria. Epaitegi horretan zergatik den intsumisioa azaldu zion epaileari, eta ondoren penaleko epaitegiaren esku geratu zen auzia. Azaroaren 13an epaitegi horretan izan zen, eta honako galdera luzatu zion epaileak: zerekin nahi duzu epaitzea, kode penal berriarekin edo zaharrarekin? Intsumisio gehienek bezala ez zuen bat ere aukeratu eta beraz, audientzia probintzialaren esku geratu da auzia. Hor

**Ejertzitoarekin parte hartzeak gure herriaren independentzia ukatzen duenarekiko lotura adierazten du.**

galdera bera luzatuko diote eta erantzun bera emanez gero, kode penal berriarekin epaituko dute. Joni ez dio inhabilitazioak bereziki axola, "ez dut funtzionaria izateko asmorik eta".

Atxabaltarra izan baina Arrasaten bizi den gazte honek dioskunez, arrazoi

## JON GOMEZ


**O**rain dela hiru urte epaitu, eta bi urte eta lau hilabeteko kartzela zigorra ezarri zioten. Martuteneko kartzelan 15 egun pasa, eta hirugarren gradua eman ziotenean, planto egin eta ordutik ez da gehiago kartzelara azaldu.

**Orain dela urte batzuk intsumisioaren gaia kaleratu beharra zegoen. Orain, gizarteak ezagutzen du.**


Orain dela gutxi bi dei jaso ditu epaitegitik hara azal dadila aginduz, baina uko egin dio. Gaur bertan Bergarako epaitegira joan behar zuen.

"Bodegas"en berbetan, "orain dela urte batzuk intsumisioaren gaia kaleratu beharra zegoen, baina orain gizarteak intsumisioa ezagutzen duela, ez da borondatez epaitegira aurkezten.

Presio sozialaren inguruan, hala ere zera dio: "Arrasaten badira intsumisoak baina ez gara larregi inplikatzeko".



## JABIER ARKONADA



Asteazkenean penaleko epaitegian izan zen Jabier Arkonada. Bere harridurarako, epaileak ez zion galdetu kode zaharra edo berria aukeratu nahi zuen, deklaratu nahi ote zuen galdetu zion bakarrik. Jabierrek ezetz erantzun, eta beraz, orain auzitegi probintzialak epaitu beharko du.

21 urteko arrasatearraren esanetan, batez ere arrazoi pertsonalengatik egin zen intsumiso: "familiako buru nintzenez, ezinezkoa nuen lana utzi eta soldadutzara joatea". Baina arrazoi nagusia hori izan arren, bere burua antimilitarizatzen du Jabierrek. "Aspalditik Arrasateko Talde Antimilitaristan


**Familiako buru nintzenez ezinezkoa nuen lana utzi eta soldadutzara joatea. Gainera, antimilitarista naiz.**

nabil, lantxo bat bezala hartu dut astero Gazte Bulegora joatea. Ez dugu aparteko ekintzarik egiten, baina hantxe egoten gara, beti egoten da galderaren batekin datorren gazterik eta". Hori bai, jende asko azken momentuan joaten ei da bulegora: "intsumiso egiteko zer egin behar duten galdetzera etortzen dira asko, baina soldadutzara joateko gutuna heltzen zaienean".

desberdinek bultzatu dute intsumiso izatera. "Alde batetik arrazoi politikoak ditut; ejerzito espainiarrarekin parte hartzeak gure herriaren independentzia ukatzen duenarekiko lotura adierazten du eta. Bestalde, antimilitarista ere banaiz. Ez da bidezkoa armadek hainbeste diru gastatzea, eta era berean laguntza sozialak murriztea".

26 urteko gazte honen arabera, politikok intsumisioa gutxi bultzatzen dute. "Gizartearen aurrean ondo geratzeko intsumisioaren alde daudela esaten dute, baina erabakiak hartzerakoan ikusten da zenbateraino dauden alde. Aretxabaletako Udalak, adibidez, ez du udal intsumiso izatea onartu".

## XABIER ATXA



A txaren iritzi, intsumisioa ez da delitua, eta horregatik, ez da bere borondatez epaitegitara joaten. Hori dela eta, atxilotuta eraman zuten Bergarako epaitegira eta baita penalekora ere. Orain dela gutxi, azaroaren 11n, berriro ere Ertzaintzak atxilotu eta entzutegi probintzialeko epaileen aurrean jarri zuten.

Penaleko epaitegian kode berria aukeratu zuenez, berari hobeto zetorkiolako, kode horrekin epaitu zuten

entzutegi probintzialak, eta laster sententzia helduko zaio. Bere ustez, 6 hilabetezko kartzela zigorra eta 10 urteko inhabilitazioa ezarriko diote, eta horrela, ez du kartzelara joan beharko. "Inhabilitazioak, berriz, ez nau hainbeste kezkatzen, nire helburua ez da funtzionari izatea eta".

25 urteko arrasatearrak dioskunez honako arrazoiengatik da intsumiso: militarismoaren aurka dagoelako eta balore

horietan sinisten ez duelako, eta euskalduna izanik armada espainiarrari laguntzea logikoa ez delako.

Gero eta gehiago gizartea intsumisioaren alde dagoela uste du Atxak. "Gizarteak ez ditu intsumisoak pertsona marginalak bezala ikusten, eta horrek asko esan nahi du".

**Gizarteak ez ditu intsumisoak pertsona marginalak bezala ikusten, eta horrek asko esan nahi du.**

Urbina Maltzagako atzerritarra

## MOISES MICAEL CRUZ

*“Urbina Maltzagan jakalari erabakiorra izan nabi dut”*

— Ostegunean etorri zinen, nolako taldea aurkitu duzu?

— Jokalariak oso jatorrak dira eta lagun handiak egingo ditudala uste dut. Zapatuan berriz, Sant Josep taldearen kontra lehen partidua jokatu nuen Badalonan. Kantxan hiru minutu eskas egon nintzen eta ez nuen izan gauza handirik egiteko aukera. Gainera entrenamendu bakarra egin nuenez ez nituen sistemak eta jokaldiak ezagutzen.

— Zein desberdintasun dago hemengo saskibaloia eta zure herrikoaren artean?


— Sistemak ez dira hain desberdinak baina jokatzeko era bai. Amerikan oso azkar jokatzen da, abiaduran oinarrituta. Hemen ez da berdina.

— Gaztea zara baina ardura handia izango duzu taldean

— Ardura izango dut baina onena ematen ahaleginduko naiz. Taldea gaztea da, ni ere bai. Hala ere beste jokalari batzuk baino esperientzia gehiago dudanez hori nabaritu egin behar da nire jokuan.

— Zure helburua datorren urteari begira?

— Hemen gelditzen banaiz ACB ligan jokatzeko gustatuko litzaidake eta Taugres Basconia taldea gogokodut.



## RUGBYA Liderra aurrez aurre



Eibarrek eta Arrasatek elkarren kontra neurtuko dituzte indarrak zapatuan arratsaldeko 4etan Eibarren. Patxi Goro-sabelen mutilek multzoko liderra izango dute aurrez aurre. Liderra izateak errespetoa ematen badu ere, ez du esan nahi garaipena lortuko ez denik. Arrasateko rugbulariak astean zehar gogoz ibili dira entrenatzen eta beldurrik gabe zelairatuko dira.

## PILOTA Partidu bakarra Iturripen



Asteburu honetan bi neurketa baino ez dituzte jokatu Arrasateko pilotariak. Juniorretan eskuz banaka Iker Zugastik Bergarako pilotaria izango du aurrean zapatuan goizeko 11etan Iturripen. Etxetik kanpo juniorrek eskuz binaka jokatu dute Añorgaren kontra.

## SASKIBALOIA Irabazteko modukoa



Urbina Maltzagak Helios taldearen bisita jasoko du domekan arratsaldeko 6etan Iturripen. German Monge entrenatzaileak Moises Micael Cruz atzerritar berria gertu izango du norgehiagoka jokatzeko. Helios taldea bi neurketa irabazi eta sei galdu ondoren sailkapeneko 12. tokian dago 10 punturekin. Arrasateko taldea azken tokian dago kokatuta partidua bakarra irabazi ondoren. Multzoko azken


tokietan dauden taldeen arteko partidua izango da. Iturripen lehia ez da falta izango ezta irabazteko gogoia ere.

## ESKUBALOIA Etxean irabazi behar



Arrasate eskubaloia taldeak Beti Onak izango du aurrean denboraldiko seigarren ihardunaldian. Neurketa zapatuan jokatu da arratsaldeko 6etan. Ibon Alzelairen mutilek ondo jokatu arren, ezin izan zuten Zarautzen kontra irabazi beraz zapatuan helburu bakarrekin kantxaratuko dira, garaipena lortzea. Beti Onak taldeak sailkapenari begira ez du ematen talde sendoa. Arrasate baino puntu bat gutxiago du.

## FUTBOLA Mondra sailkapeneko buruan



Preferente mailako Mondra hiru neurketa jarraian irabazi eta gero, sailkapeneko bigarren tokian dago 20 punturekin. Puntuz parekatuta sailkapeneko lehen lau taldeak daude: EHU, Oiartzun, Ordizia eta Mondra. Goialdean jarraitzeko Jesus Mari Barrantibengoak zuzentzen duen taldeak domekan ezin huts egingo du Mutriuren kontra. Partidua arratsaldeko 3.30etan egongo da jokuan San Migel futbol zelaietan. Mondrako emakumeek berriz, Eibartarrak taldea izango dute aurkaria zapatuan Eibarren. Etxeko jokalariek ez galtzeko ondo babestu beharko dute atea eta trebe ibili aurkariaren aurrean.



Saioa taldeko karatekek astean lau bider entrenamenduak izaten dituzte.

## Saioa eskolako karatekak Gipuzkoako txapelketara

**S**aioa karate taldeko karatekek badute pozik egoteko arrazoirik. Urrian promoziozko karateko hiru txapelketetan hartu dute parte eta Iñaki Muñozen gidaritzapean dabilzan neska mutilek emaitza ezin hobekak lortu dituzte. Duela bi aste-buru 14 urtetik 18 urtera arteko promoziozko Gipuzkoako txapelketan izan ziren Donostian. Arrasatetik 14 karateka joan eta bederatzik hiru lehenen artean kokatzea lortu zuten. Iñaki entrenatzaileak balorazio positiboa egin du bere taldeak erakutsitako mailaren gainean "gaur egun Lasarte, Irun eta Errenderia dira talde sendoenak baina gu parean gaude". Arrasate beraz, maila ona dago baina horretarako ahalegin guztia egiten dute karatekek "aste-

an lau eta bost entrenamendu egiten dituzte, ikasteko gozoz etortzen dira eta hori asko eskertzen da". Saioa karate eskolan hiru talde daude: 6 eta 9 urte artekoak, 10-14 urtekoak eta 14 urtetik gorakoak. Talde horietan sendoena 10 urtetik 14 urtera artekoek osatzen dute "horiengan jarri dut itxaropen guztia, horrela jarraitzen badute urrutit heldzeko aukera izan dezaketek eta".

Karateka hauen helburu nagusia urte bete edo bi barru Estatuko txapelketan parte hartzea bada ere, epe motzeta Euskadiko txapelketa dute erronka. Euskadiko txapelketa abenduan jokatuko da baina horra heldzeko Gipuzkoakoan beharrezko puntuak lortu behar dituzte. Gipuzkoako txapelketa azaroaren 30an

egongo da jokuan eta bertan Arrasateko ordezkariak ez dira falta izango.

Iñaki entrenatzailearentzat karateak ez du adinik, bere taldean 6 urtetik 60 urte arteko kirolariak daude. Ez du adinik ezta sexurik ere "karatea ez da borroka eta agresibitate, koordinazioa, flexibilitatea, indarra eta kontzentrazioa asko duen kirola baizik". Karatean besteak beste bi ariketa mota daude: kumitea eta katak. Kumitea borroka den neurrian katetan kirolariek ezarritako ariketak egin behar dituzte, dantza bat bailitzan "Katak dantza moduko ariketak direnez emakumeak hobeto ibiltzen dira elastizitate eta koordinazio handiagoa dutelako. Kumitea edo borroka indarrean oinarritzen denez, gizonendako aproposagoa da".

## Azaroaren 30etik aurrera atleten txanda


Arrasate atletiko taldeko atletek azaroaren 30an emango diote hasiera aurtengo denboraldiari. Egun horretan Donostian gazte mailako partehartze libreko frogak izango dituzte. Ordutik aurrera zapaturo era horretako txapelketak egongo dira jokuan.

## Gimnasia erritmikakoak denboraldia prestatzen

Arantzazu Zubia eta Adelaida Silvar entrenatzaileen zuzendaritzapean gogor ari dira entrenatzen gimnasia erritmikako neskek. Iaz bezala aurrean astean hiru bider elkartzeko dira Musakolako kiroldegian kirol honen inguruan jakin beharrekoa ikasteko. Hauek martxora aldera hasten dira txapelketekin beraz ordura arte helburu nagusia ondo prestatzea izaten da. Dauden taldeak nahiko osatuta egon arren, norbait gimnasia erritmikoa ikasteko gertu balego Musakolako kiroldegira zuzendu beharko litzateke.



Gogor ari dira Arrasateko gimnastak.



**F**utbito txapelketa batean tajuzkoa den bezala golak izaten dira protagonista. Batzutan asko sartzen direlako eta beste batzutan aurkariaren atea zulatzeke modurik ez delako egoten. Jokatu den azken ihardunaldian Koka Junior eta Iluna Taberna neurketan sartu dira gol gehien, guztira 20. ZZPPW7 eta Motzen artekoan berriz, 16. Ez da marka makala!

## Golen listoa altu altu

### Laburrak

#### ■ IRABAZI ETA GALDU

Zazpigarren ihardunaldian era guztietako emaitzak. Baina batzurenako berezia izan da. Esatebaterako Txeyenek txapelketako lehèn partidua galdu zuen Los Dimy taldearen kontra. Zelan galdu gainera bost goleko aldeaz. Bestalde Borronc Roll taldeak lehen garaipena lortu zuen 13 eta 0 Rotor De Bolbogrado jipoitu ondoren.

#### ■ ATSEDENA TALDE BAKARRARENTZAT

Asteburu honetan Onariereng taldeak atsedena izango du. Hauek Kaxi Ganamos taldearen kontra neurtu behar zituzten indarrak baina Kaxi Ganamosekoak txapelketatik kanpo daudenez, atsedena Onarierengtzat.

#### ■ PARTIDU ONENAK

Zapatu eta domekan jokatu den ihardunaldirako hiru neurketa aholkatuko ditugu. Sokoakoak eta Sortu informatika taldeen artekoa Zaldibarren. Iturripen eguerdian Orlando Piratas eta MSM eta azkenik domekan Zaldibarren Arrogoi taberna Alai Gozokiak.



# GRONDO

## Elektrizitatea

- \* Elektragaiak
- \* Instalazioak
- \* Automatismoak
- \* Proiektuak
- \* Argiztapena
- \* Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa • ARRASATE  
Tel.: 79 78 15 / 77 10 42 Faxa: 77 14 76

# Sailkapenak

A taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Aldo	Aurk.	
Betrayer	7	7	0	0	50	11	14
Irati STS	7	6	0	1	42	9	12
Abinagraus	7	6	0	1	45	16	12
Ojo Avisore	7	5	0	2	37	18	10
Aurrera Bolie	7	5	0	2	36	19	10
Galartza Kont	7	5	0	2	34	19	10
Pipwhis	7	5	0	2	28	21	10
Arrogoi Taberna	7	5	0	2	26	26	10
DKB	7	3	3	1	21	14	9
Baneuko	7	4	1	2	18	20	9
Lorategi Potroak	7	3	2	2	24	19	8
Leya	7	4	0	3	23	25	8
Kriskibalda	7	2	2	3	17	19	6
Me la Pela	7	2	1	4	20	21	5
Totem	7	2	1	4	28	31	5
Potosorri	7	2	1	4	17	25	5
Onaniereng	7	2	1	4	13	33	5
Berango Sukaldeak	7	1	1	5	22	33	3
Alai Gozokiak	7	1	1	5	11	42	3
Viboras	7	0	0	7	21	36	0
Kaxi Ganamos	7	0	0	7	3	27	0
Etxe Mobil	7	0	0	7	2	54	0

B taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Aldo	Aurk.	
Insert coin	7	6	1	0	40	8	13
Okoretegi	7	5	2	0	48	12	12
Cerveceria Leintz	7	6	0	1	40	11	12
Argi Ibili	7	6	0	1	50	15	12
Naranja Mekanika	7	6	0	1	43	14	12
Jotakabau	7	5	1	1	24	21	11
ZZPPW7	7	3	3	1	36	26	9
Los Innombrables	7	3	3	1	28	24	9
Ke Oxtias	7	3	2	2	27	22	8
Motz	7	3	2	2	30	28	8
LA mosca Gao	7	2	2	3	33	34	6
Fosforos	7	2	2	3	21	28	6
Sobredosis	7	3	0	4	21	28	6
Perrahotsa	7	1	3	3	18	22	5
Kinder Konpresa	7	2	1	4	21	37	5
Pepelus	7	1	2	4	18	19	4
Ganbelas	7	2	0	5	27	35	4
Diego Antonio	7	2	0	5	22	34	4
Los Heredia	7	2	0	5	19	30	4
Gualtrapas	7	1	1	5	17	42	3
Elisabeth	7	0	1	6	9	56	1
Hapoel Jamon	7	0	0	7	10	56	0

D taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Aldo	Aurk.	
AC Surcos	7	6	0	1	68	15	12
Sortu Informatika	7	6	0	1	40	13	12
MSM Inge Integral	7	6	0	1	32	17	12
Txeyenex	7	5	1	1	32	15	11
Sokoakoak	7	5	0	2	51	26	10
Nuebo Taberna	7	4	2	1	26	18	10
Los Dimy	7	5	0	2	35	28	10
Orlando Piratas	7	5	0	2	33	30	10
KK Jauriaritzari	7	4	1	2	29	28	9
Bedarreta taberna	7	4	0	3	28	17	8
Adelaida	7	3	1	3	22	30	7
Koka Junior	7	2	2	3	30	26	6
Anbotoste	7	3	0	4	20	23	6
Danok Lagun	7	2	2	3	19	25	6
Lautherbrunen	7	3	0	4	19	27	4
Bukanak	7	2	0	5	20	42	4
Hirei	7	2	0	5	19	44	3
Rotor de Bolb	7	1	1	5	7	40	2
Borrock'n Roll	7	1	0	6	37	42	2
Cartonajes Igamo	7	0	2	5	13	27	2
Iluna Taberna	7	1	0	6	22	47	2
Tronkoteak	7	1	0	6	13	35	2



**BEGIRATZEN IKASI.** Baloia eskuan eta begirada kan-txan erme erme jokaldi guztiak jarraitzen ari dira gazte hauek. Futbitoaren gainean jakin beharrekoa jakiteko bide ona, gainera gaur egun izar ditugun jokalariek, Suker, Ronal-do eta Mijatovic esatebaterako horrela hasi ziren.

## Emaitzak

A taldea
Lorategi potroak 3 - Irati STS 2
Alai Gozokiak 2 - Kriskibalda 2
Aurrera Bolie 7 - Arrogoi taberna 3
Baneuko 5 - Ojo Avisore 2
Berango Sukaldeak 3 - Betrayer 8
Galartza Kont. 4 - Abinagraus 3
Etxe Mobil 0 - Leya 5
Viboras 5 - Potosorri 6
Totem 4 - DKB 4
Kaxi Ganamos 0 - Pipwhis 1
Me la Pela 6 - Onaniereng 1

B taldea
ZZPPW7 8 - Motz 8
Los Innombrables 1 - Insert Coin 1
Kinder Konpresa 4 - Ganbelas 3
Sobred. de Txeira 2 - Ke Oxtias 4
La mosca Gao 2 - Argi Ibili 6
Diego Antonio 2 - Okoretegi 7
Hapoel Jamon 2 - Jotakabau 5
Fosforos 3 - Cerveceria Leintz 9
Elisabeth 0 - Naranja Mekanika 11
Gualtrapas 4 - Pepelus 3
Perrahotsa 2 - Los Heredia 1

D taldea
Cartonajes Igamo 3 - Danok Lagun 3
MSM Ing. Int. 3 - Bedarreta Tab. 0
Nuebo Tab. 4 - Orlando Piratas 2
Koka Juniors 13 - Iluna Taberna 7
Sortu inform. 3 - Lautherbrunen 2
Anbotoste 4 - Sokoakoak 2
Bor. Roll 13 - Rotor de Bolbog. 0
Los Dimy 5 - Txeyenex 0
Hirei 0 - AC Surcos 14
Tronkoteak 3 - KK Jauriaritzari 7
Bukanak 2 - Adelaida Aldibi 4

## Hurrengo partiduak

### 7. ihardunaldia

Azaroak 23, larunbata

#### Zaldibar

8.50	Abinagraus - Berango Sukaldeak
10.00	Rotor de Bolbogrado - Anbotoste
11.00	Lautherbrunen - Koka Juniors
12.00	Txeyenex - Borrock Roll
13.00	Betrayer - Baneuko
14.00	Bedarreta Tab. - Cartonajes Igamo
15.00	DKB - Viboras
16.00	Sokoakoak - Sortu Informatika
17.00	Naranja Mekanika - Fosforos
18.00	Iluna Taberna - Nuebo Taberna
19.00	Argi Ibili - Sobredosis de Txeira

### Iturripe A

10.00	Ganbelas - Los Innombrables
11.00	Irati STS - Me la Pela
12.00	Motz - Perrahotsa
13.00	Orlando Piratas - MSM Inge Integral
14.00	Pepelus - Elisabeth
15.00	Insert Coin - ZZPPW7
16.00	Kriskibalda - Lorategi potroak
17.00	Jotakabau - Diego Antonio

### Iturripe B

13.00	Leya - Galartza Kontenedoreak
14.00	Los Heredia - Gualtrapas
15.00	Okoretegi - La Mosca Gao
16.00	Ojo Avisore - Aurrera Bolie

17.00 Ke Oxtias - Kinder Konpresa

### Azaroak 24. Igandea

#### Zaldibar

8.50	Cerveceria Leintz - Hapoel Jamon
10.00	Potosorri - Etxe Mobil
11.00	AC Surcos - Los Dimy
12.00	Pipwhis - Totem
13.00	Kk Jauriaritzari - Hirei

### Iturripe A

11.00	Arrogoi Taberna - Alai Gozokiak
12.00	Danok Lagun - Bukanak
13.00	Adelaida Aldibi - Tronkoteak.

**JUAN MARI MENDIZABAL** (EUSKAL KULTURAREN BATZARREKO LEHENDAKARIA)

# “Euskarak borondate po

**J**uan Mari Mendizabal elgoibartarra EKBko lehendakaria da. “Eman euskarari berea” lelopean burutzen ari den EKBko kanpaina dela eta, orain gutxi Monterronen egon zen, kanpainaren helburuen berri emanez. Ikasketez enpresa gizona izango litzateke, baina ogibidez eta bihotzez betidanik euskararen militante izan da.

- AEKn denbora piloa, EKBn orain... euskararen aldeko lanean betidanik. Nondik bizitza osoa horri eskaintzeko gogo hori?

- Hasteko esango nuke euskararen aldeko lanean nabarmentzen ez den jende dexente dabilela, eten barik gainera. Horietako bat besterik ez naiz, gauzak etorri diren moduan etorri direlako egokitu zait han edo hemen egon eta agertu behar izana, baina

jende asko dabil lan horretan. Nondik? herriaren eta hizkuntzaren kontzientzia batera hartu nituen. Euskal Herriaren egoera eta hizkuntzarena betik izan dira bat.

- AEKn denbora asko egondakoa zara, eta denbora horretan asko aldatu zen AEK. Ibilbide horren deskribapenik?

- AEKk 80. hamarkadan urte gogorak pasazituen, euskalduntze-alfabetatzean instituzionalizazio bat egon

zelako AEK ezertarako kon-tuan hartu barik, eta AEKren aurka ere esango nuke. Ordu-ra arte euskal-

tegiak eta jendea prestatzen lan handia eginda zegoen AEKn. Egoera berriak AEK barruan hainbat haserre, gaizki ulertu eta istilu ekarri zuen... baina gaurtik ikusita esan daiteke AEKk asmatu zuela nola egin aurre egoera hari. Pasatutakoak pasatuta AEKk asmatu egin du lanean jarraitzen eta Euskal Herriarendako lan on bat egiten eta hori da azkenean lortu zen akordiotxoaren arrazoi nagusia.

- Akordiotxora iristeko, norbaitek atzera egin behar izan zuen?

- AEK utzi nuenean aurreakordioa sinatzeko zegoen. Usteduzin dela hitzegin inoren aldetik egon

“Borondate politikorik ikusten ez denez, herriak egin beharko da presioa eta eskaera, ikus dezaten euskararen normalizazioan aurrera egin nahi dugula”



# Politikoa behar du"

zitezkeen amore emateaz eta barrez. Eboluzio bat gertatu da eta horrek ahalbideratu du amankomunak izan zitezkeen gauzen inguruan akordio bat bilatzea.

## - EKB zer da?

- EKBren helburu nagusia euskalgintza koordinatzea izan da, eta helburu nagusi bezala plangintza orokor bat bideratzea. 1983an Argia, Euskal Herrian Euskaraz eta AEKrekin hasi zen; gauegun, talde gehiago koordinatzen dituzte, Egunkaria, UEU, IKA euskaltegiak, herrietako euskara elkarte batzuk....

Ni sartu berria naiz hemen eta helburu horretan, euskalgintzaren koordinazioan jakina, gutxi aurreratu dela

esango nuke. Arrazoi asko egon daitezke. Jendea oso lanpetuta ibili da 80. hamarkadan bakoitza bere zereginetan, batzuk ikasten, beste batzuk irakasten, beste batzuk aldizkarigintzan... eta horrek ez du astirik edo aukerarik eman euskararen orokortasunean pentsatzeko, bakoitzak izan duelako nahikoa eta sobera bere arazoei aurre egiten.

Une honetan uste dut ematen direla baldintzak, baita instituzioetan ere balantzea egiteko ordua badelako, eus-

kara ikuspegi orokor batetik begiratzeko.

## - Orokortasun horretatik begiratuta, euskara nora doa? atzera? aurrera? geldirik dago?

- Orain lanean daukagun kanpaina justu horri begira dago, euskarak aurrera edo atzera egiten duela esateko uste dut alde batetik tresnak falta direla, gizar-te osoa esparru guztietan azertu beharko genukeelako eta hori momentu honetan falta da. Hizkuntzaren aldetik eskuhartze orokor bat falta da une honetan,

esparru batzuetan egiten da zerbait, baina beste askotan euskarak oraindik ez du inolako presentziarik.

Bestalde garbi dago Nafarroa oraindik atzerago duela instituzioek eta gobernuak gutxiago laguntzen

duelako eta Iparraldean nabarmena da galtzen ari dela.

Orain kanpainen euskararendako plan orokor bat eskatzen gabilta. Borondate politikorik ikusten ez denez, herriaren aldetik egin beharko da presioa eta eskaera, ikus dezaten euskararen normalizazioan aurrera egin nahi dugula.

## - Arrasate aipatzerakoan eredu hitza erabiltzen da askotan. Zenbateraino da egia?

- Baietz uste dut. Ez naiz bertan bizi eta ezin dut neurtu, baina entzun eta ikusita koagatik berezia ematen du: lan pilo bat egin da, tresna pilo dago euskararen alde, herrian euskararen perzepzio bat eta eskaera bat bizi da, sentitzen da... eta datoek gainera esaten dute igartzen dela, erabiltzen diren inguruko kezka hor egongo diren arren. ■

**"Arrasatek berezia ematen du: lan pilo bat egin da, herrian euskararen perzepzio bat eta eskaera bat bizi da, sentitzen da"**



# LASAGABASTER

## ZURE KONFIDANTZAKO DENDA.

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tel.: 79 27 27 / 79 13 55

# Leintz-Gatzagako gatz fabrikako kangiloi gurpila abendurako gertu


**1** 992tik hainbat berri-tasun eta ikerketa egin da Gatzako gatz fabrika eta berritasun horiek Dorletako Ekomuseoa eratzeko helburua finkatzera eramanean zuten 1995ean. Dorletako Ekomuseoaren proiektuak gatz fabrika martxan jarri nahi du, beti ere helburu didaktiko eta kulturalekin.

Egin diren berritasunez gain, esan behar da momentuz dirulaguntza falta gatik Ekomuseoaren proiektua geldi samar dagoela baina gatz fabrikara joango den ura mugiaraziko duen kangiloi gurpila egiten ari da Jesus Mari Etxezarreta arotz oñatiarra eta abendurako amaituta egongo dela espero da.

Gurpil hau izango da agian gatz fabrikaren berreskurape-nean gauzarik deigarriena eta ikusgarriena. Izan ere, hamazazpigarren mendeko asma-kizuna da arotz oñatiarra egiten ari den gurpilak mugituko duen sistema. Baina sistema zahar hori gatz fabrika jarri nahi izanak, arazoak ere ekarri ditu oso erreferentzia bibliografiko eta arkeologiko gutxi daudelako Dorletako gatz fabrika orain urte asko egon zen sistema horretaz.

## MAKINARIA

Gatz fabrikako makinariari dagokionez, ur gezaren kontaktuarekin erdoildu ez



San Millixan egunean kangiloi gurpilaren maketa ikusgai jarri zen Leintz-Gatzagan.

dadin, egurra erabili nahi izan da material moduan. Makinaria kangiloi gurpila, eje eta eusgarriak, gurpil traktorea, *Patenotre* errosarioa, kanal,

biga eta elementu auxiliarrek osatzen dute.

Kangiloi gurpilari dago-kionez, gatz fabrikaren kanpoaldean egongo da. Gurpil

hori izango da sistema osoa mugitu dadin energia eman-gongo duena. 3.20 metroko diametroa izango du eta 16 radio. Gurpilak 32 kangiloi izango ditu eta kangiloi bakoitzak 498 ur litroko bolumen karga jasoko du.

Egurrezko gurpilak erre-kako uraren indarra aprobetxatuz bigarren gurpil bat mugiaraziko du. Bigarren hau gatz putzuaren gainean jarriko da eta leku horretatik kangiloi errosarioaren bidez ura altzaraziko du.

Kangiloi gurpila abendurako amaituta egongo dela espero da eta orduan ikusi ahal izango da gurpil erraldoia mugimenduan.

## Gatzaren aintzinako fabrikazioa

**G**atzagarrek aspalditik ustiari dute Dorletako gatzelu zaharraren magaletik irteten den ur gaziko iturria. Arkeolanen arabera, erromatarren garaian ere jarduten zuten horretan. Ur gazia zurezko upeltxoekin ateratzen zen gatz manantialeatik eta ubideen bidez 8 dorletara bidaltzen zen. Han gatz irakin egiten zen eta gau eta egun piztuta izaten zen sua. Ura lurruntzen zenean, gatz ontziaren barrenean geratzen zen eta orduan otzaretan jaso eta supazterean eskegitzen ziren. Horrela kalitate hobeko produktua lortzen zen. Gatz urtean sei hilabetez ustiitzen zen, uztailetik abendura.

### BASABE JATETXEA

Menu eta afariak  
Boda eta banketeak

Tel.: 79 91 84

ARETXABALETAK

### ILEAPAINDEGI ETA ESTETIKA IKASTAROA 1º MAILA

Hasiera: Abenduaren 2an.

Ordutegia: Arratsaldeko 6etatik 8,30etara.

Plaza mugatuak.

Santa Teresa, 12 Tel.: 79 04 59 ARRASATE



famili eta gizarte-  
hezkuntzarako  
zentruak

### ITSASKI

ARRANDEGIA

Arrain freskoa  
eta jaki izoztuak

Uribe Auzoa

ARRASATE

Tel.: 79 98 94

## ISITXO LARRAÑAGA

## “Aurtengo akordeoilari kopuruak gure asmo guztiak gainditu ditu”

Azaroaren 29tik abenduaren 8ra akordeioen soinua izango da nagusi herrian. Arrasate Gipuzkoako IX. Akordeoi Jaialdiaren, Gipuzkoako XVII. Akordeoi Lehiaketaren eta IV. Nazioarteko Akordeoi Lehiaketaren topaleku izango da. Euskal Herriko, estatuko eta atzerriko 410 akordeoilari ahalik eta postu onena lortzera etorriko dira.

— Hiru lehiaketa batera baina helburu desberdinekin, ez?


— Bai. Akordeoi jaialdia instrumentua jotzen hasi berriak direnei zuzenduta dago, hau da, gaztetxoenei. Gipuzkoako akordeoi jaialdia euren akordeoi ikasketak aurrera daramatzatenendako, nolabait esatearren zailagoa da. Nazioartekoa berriz, elitearendako da, onenendako.

— Nondik etorriko dira akordeoilariak?

— Euskal Herriatik ezezik, Burgos, Zaragoza, Katalunia eta beste toki batzutatik; nazioarte mailan berriz 18 akordeoilari etorriko dira Ukraina, Danimarka, Errusia, Polonia, Yugoslabia, Finlandia, Alemania eta beste hainbat herrialdetatik. Euskal Herriko ordezkariak Iñigo Aizpiolea irundarra eta Francisco Javier Jaso iruñarra izango dira.

— Berritasunik izango da aurtengo edizioan?

— Bai. Iazko partaidetzarekin topea jo genuela uste genuen, 350 akordeoilari etorri ziren eta aurtengo ez genuen espero hori gainditzea baina 410 akordeoilari etorriko dira. Hori dela eta, aurreko urteetan ez bezala, 3 lehiaketak bi asteburutan eta astean zehar burutuko dira. Beste berritasun bat kontzertuak dira. Iaz irabazi zuen



frantziarrak abenduaren 4an Aretxabaletan joko du, Sean Tolosan, 6an Aramaion eta 9an Iruñan. Amaia antzokian abenduaren 6an kontzertu berezi bat izango da epaimahaiko bi maisuren artean: Rantanen eta Semionowen artean. Jai giroko kontzertuak ere antolatu ditugu: abenduaren 5ean Kajoi tabernan gaueko 11etan Aitor Furundarenak eta Aitor Zubeldiak joko dute eta 6an Aterpe kafetegian Arinka akordeoi taldeak emanalditxoa eskeinitu du gaueko 11etan.

— Aurreko urteetan zein inpresio eraman dute kanpotarrek?

— Izugarri ona, eurak dira lehiaketa honen publizitate onena.

— Faboritorik badago?

— Oso musikari onak datoz eta zaila da esatea. Dena den, orain dela lau urte bigarren postuan geratu zen finlandiarra dator eta orduan lortu ez zuen lehen postua bereganatzeko gogoz dago, pikatuta dator. Nik ez dut faboritorik baina bi euskaldunek paper ona egin dezakete ere. Lehia ziurtatuta dago.

## aste gazte

## ■ BEKAK

• Lan eta Gizarte Arazoetako Ministeritzak, Emakumearen Institutuan burutuko diren heziketa bekak kaleratu ditu, bertako programa ezberdinetan parte hartu ahal izango delarik. Eskariak aurkezteko epea: abenduak 9.

• Gipuzkoako Foru Aldundiak, enpresa ekimen berrien sustatzaileei laguntzeko beka programa bat kaleratu du. Epea: abenduak 15.

## ■ LANA

• Zallako Udalak liburuzain lanpostu bat kaleratu du. Eskariak aurkezteko epea: azaroak 30.

• Basauriko Udalak hainbat lanpostu bete nahi ditu: diruzain bat, auditore bat, bi administrari, agente betearazle bat eta udaltzain bat. Guztientzat eskariak aurkezteko epea: azaroak 29.

## ■ LEHIAKETAK

• Alcalá de Henares-eko Udalak kartel lehiaketa antolatu du “Sida, un problema de todos” lelopean. Lanak bidaltzeko epea azaroaren 25ean amaitzen da.

• Arrigorriagako Udalak IX. Argazki Lehiaketa antolatu du. Gaia librea da eta argazkiak koloretan nahiz txuri-beltzean aurkeztu ahal izango dira. Epea: abenduak 1.

• Madrilgo “Círculo Cultural Fraonico”ek ipuin laburren lehiaketa bitxia kaleratu du. Lanaren gehieneko luzeera 15 lerro mekanografiaturik, gai librean. Sari simbolikoa. Epea: abenduak 13.

Informazio gehiagorako:

GAZTE ZERBITZUA

☎ 77 00 65

**Euskal Herriko, estatuko eta atzerriko 410 akordeoilariak topo egingo dute Arrasaten**

## ETXEBIZITZAK

### 1. Saldu

• Guztiz berriztuta dagoen etxebizitza salgai Grupo San Juanen. Tel: 79 19 62. Gaeuz deitu.

• San Josepe auzoan etxebizitza salgai. Tel: 77 08 06.

• Las Malvinas-en etxebizitza salgai. Tel: 77 08 06.

### 3. Errentan emateko

• Pisua alokatzen da Maalako Errabalean. Tel: 79 31 51.

• Ikasleendako aproposa den pisu handi bat alokatzen da Erguin kalean. Tel: 79 22 79.

• OIa auzoko 37. zenbakian erdi-jantzita dagoen etxea alokatzen da. Tel: 79 78 10.

• Pisua alokatzen da Munar auzoan. Tel.: 79 77 85.

### 5. Etxe konpartituak

• Pisua osatzeko pertsona bat behar da San Andres auzoko Errebueltakalean. Tel: 86 07 86. Alaitz.

• Pertsona bat behar da Omatin pisua osatzeko. Deitu gaeuz 78 16 63 tfnora. Karmen.

• Lagun bat behar da Eskolatik gertu dagoen pisua osatzeko. Urtarriletik aurrera. Tel.: 77 14 26.

## GARAJEAK

### 7. Saldu

• Roneoko lehenengo solairuan garaje itxia saltzen da. Tel: 79 18 70.

• San Andresen garaje plaza salgai. Tel: 79 73 82.

• Roneoko etxeetan garaje bikoitza eta itxia salgai. Tel: 79 14 66.

## LOKALAK

### 12. Saldu

• Erguin kalean lokal bat salgai. Tel: 79 18 70.

• Lokala salgai Erguinen, orain drogadenda bezala dago. Tel: 79 89 53.

## ETXEBIZITZAK

1. Saldu
2. Erosi
3. Errentan emateko
4. Errentan hartzeko
5. Etxe konpartituak
6. Bestelakoak

## GARAJEAK

7. Saldu
8. Erosi
9. Errentan emateko
10. Errentan hartzeko
11. Bestelakoak

## LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

13. Erosi
14. Errentan emateko
15. Errentan hartzeko
16. Bestelakoak

## LANA

17. Eskaintzak
18. Eskaerak
19. Bestelakoak

## IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak
21. Eskaerak
22. Bestelakoak

## MOTORRA

23. Saldu

24. Erosi
25. Bestelakoak

## DENETARIK

26. Saldu
27. Erosi
28. Trukatu
29. Eman
30. Hartu
31. Galdu
32. Aurkitu
33. Bestelakoak

## HARREMANAK

34. Agurrak
35. Kontaktuak
36. Deialdiak
37. Bestelakoak



# 77 05 65

ARRASATE PRESS. Azoka, z/g. 20.500 (ARRASATE)

**Sail honetan agertzen diren iragarkiak dohainekoak dira. Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik. Arrasate Press-ek ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzunkizunik. Asteazken eguerdia baino lehen deitu behar da iragarkia jartzeko.**

• Kontsulta amankomuna egiteko lokala salgai. Tel: 79 06 82 eta 79 46 20.

### 14. Errentan emateko

• Martxan doan harategia eskuz aldatzen da. Tel: 79 28 01.

## LANA

### 17. Eskaintzak

• Esperientziadun klinika laguntzaileak umeak edo helduak zainduko lituzke. Tel: 79 34 09. Amaia.

• Zure etxea garbitzeko neska gazte baten bila bazabiltza dei egizu 79 46 82 tfnora.

• SOS. Lana behar dut. Emakume gaztea naiz eta bi seme-alaba ditut. Kamarera lana egin izan ditut. Tel: 79 53 18.

• Andra klinika laguntzailea eta gerontologian diplomaduna pertsona nagusiak zaintzeko gertu. Tel: 79 34 53.

• Geriatria tituloduna egunez edo

gaeuz pertsona edadetuak edo umeak egunez zaintzeko gertu. Tel: 79 61 05. Amaia.

• Umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko gertu. Tel: 79 54 06.

• Bi neska jator arratsaldean lan egiteko gertu. Propaganda banatzen onenak gara eta konfidantzazkoak. Tel: 79 52 37 eta 79 74 71.

• Mutila gidari lanak egiteko gertu. Tel: 77 04 20.

• Bergaran taxi plaza eskualdatuko nuke. Tel: 76 44 04.

• Etxeko lanak egin edo umeak zainduko nituzke. Tel: 79 95 96.

• Nazio eta nazioarteko merkantzia titulua ajentziei alokatzeko prest edo lanpostu baten trukean aldatzeko prest. C-2 gidatzeko karneta ere badut. Tel: 79 72 46.

• Kanguro bezala lan egingo nuke ostiral eta larunbatetan. Tel: 79 12 00. Agurpe.

• Neska lana egiteko prest. Tel: 77 02 70.

• Emakume gaztea tabernatan, etxea garbitzen edo umeak zaintzen has-teko gertu. Tel: 79 67 30.

• Neska prest etxeko lanak egiteko edo/eta umeak eta pertsona nagusiak zaintzeko. Tel.: 79 31 44.

• Etxeko lanak egiteko neska prest. Tel.: 79 60 62. Mentxu.

• Esperientziadun neska kamarero lanak egin edo umeak zaintzeko gertu. Tel.: 79 76 27. Maite.

• Etxeko lanak egin edo umeak zainduko gertu. Tel.: 79 68 77. Ester.

• Titulodun eta esperientziadun neska klase partikularrek emango lituzke, DBHkoei nahiz BUPekoei. Klaseak erdaraz. Tel.: 79 79 84. Kontxi.

### 18. Eskaerak

• Astebukaerarako lehen bailehen pertsona bat behar dugu kalkulo orri simple batera informazioa pasatzeko. Tel: 79 98 37.

• Taberna lanetarako neska euskalduna behar dugu. Tel: (945) 44 50 86.

• Harategian esperientziadun mutil bat behar da. Tel: 77 07 02.

• Emakume euskalduna behar da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Dei egin arratsaldean. Tel: 79 71 34.

• Neska euskaldun gaztea behar da moda denda baten lan egiteko. Tel: 79 81 82.

## IRAKASKUNTZA

### 20. Eskaintzak

• Injinerutza ikasleak DBH, UBI eta FPko klase partikularrek emateko gertu. Tel: 79 16 19.

• OHoko klase partikularrek ematen ditut prezio onean. Frantsesekoak ere bai. Tituloduna naiz. Tel: 79 50 99.

• OHoko klase partikularrek emateko gertu. Tel: 79 98 30.

• Pianoko klase partikularrek ematen ditut maila guztietan. Tel: 79 24 14.

• LH, DBH eta REMeko klase partikularrek emango nituzke. Euskaraz, jakina! Dei egin iluntzeko 8etatik 9etara. Tel: 79 33 39.

• EGA titulodun injinerutzako 2. mailako ikasle batek OHoko klase partikularrek emango lituzke. Tel: 79 64 03.

• Ingeles filologian diplomaduna klase partikularrek emateko gertu. Tel: 79 59 16.

• Irakasle titulodunak lehen hezkuntzako eta DBHko klase partikularrak emango lituzke. Tel.: 79 94 04. Mari Jose.

## 21. Eskaerak

• Marrazki geometrikoko klase partikularrak hartuko nituzke. Tel.: 79 83 33.

## MOTORRA

### 23. Saldu

• Niva Lada SS-AB autoa salgai. Tel.: 79 15 58.

• Ford Scort autoa salgai. 30.000 km. Egoera ona. Tel.: 79 22 92.

• Fiat Tempra 140 SX autoa salgai. Tel.: 77 06 48. Gaueko 9etatik 10etara deitu.

• Seat Malaga salgai, 98ra arte ITVa gaindituta dauka. 300.000 pta. Tel.: 79 78 10

## DENETARIK

### 26. Saldu

• Antigualeko zapatak josteko makina eta zapatak konpontzeko makina salgai. Historikoak dira. Tfnoak: 71 50 72 edo 79 81 70.

• Ricoh FT 3320 fotokopiagailua salgai. Egoera ona. Tel.: 79 28 17.

• Estreinatu barik dagoen 3/4 bisoizko txaketoia salgai. Tel.: 79 45 86.

• Logela berri bat salgai. 2 ohe eta bi mesanotxe. 20.000 pta. Tel.: 79 78 10

• 1.05ko ohea, sekreterra eta mesanotxea dituen logela salgai. 15.000 pta. Tel.: 79 78 10.

• Estreinatu gabeko Lur Hiztegi Entziklopedikoa salgai. Tel.: 79 87 47.

• Haur kotxea, aulkia eta kapazoa salgai. Burguja eta poltsa oparituko da. Tel.: 79 90 03.

• Fostex 280 lau pistatako grabagailua eta Yamaha RX8 erritmo-kutxa salgai. Tel.: 78 90 70. Gaeuz.

• Komunerako manpara ia berria salgai. 15.000 pta. Tel.: 79 97 60.

• Ordenadoreendako D7 West jokoak salgai. 6.500 pta. Interesatuak egin asteazken edo ostiraletan arratsaldeko 5etatik 7.30etara. Tel.: 79 68 85.

• Ezkontzeko soinekoa salgai. Taila: 40-42. Tel.: 79 55 28.

### 27. Erosi

• Logela batendako arropa gordetzeko bigarren eskuko armairua erosiko nuke. Tel.: 79 78 10.

### 31. Galdu

• Kanarioak ihes egin zigun Otalora kaletik eta oso triste gaude. Aurkitu baduzu dei mesedez 79 54 04ra.

### 32. Aurkitu

• Larunbat gauean kotxe baten giltzak aurkitu nituen Arbolapeta inguruan. Jabea Udaltzaingora joan dadila.

### 33. Bestelakoak

• Zaldi bat zure esku 10.000 pta. hilean ordainduz gero. Tel.: 76 30 01.

• Tarot kartak irakurtzen ditut. Tel.: 79 82 55.

## HARREMANAK

### 34. Agurrak

• Maider, Maider, Maider... nire bihotzeko kokkorra. Beti maitatuko zaitut nahiz eta ni zuretzat inor ez izan. Zorionak for ever. Maite zaitut.

• "Buenas" laster helduko dira berri onak eta nahi duguna lortuko dugu. (J.L.S.). Zorionak urte askotarako txiki.

### 36. Deialdiak

• Azaroaren 30ean bazkaria egingo dute Gasteizen bizi diren arrasatearrek. Zuk ere parte hartu nahi baduzu dei egin: 945- 22 34 97 (Edurne) edo 945- 14 23 43 (Mila). Bazkaria Zaldiaran jatetxean egingo da.

### 37. Bestelakoak

• Bergara-Donostia, arratsaldeko Setan joan edo gaueko 10etan etortzen bazara, zurekin gasolina konpartituko nuke. Tel.: 76 46 26 (Nekane).



LEIHO ISOLATZAILEAK



Bezeroarekin zerbitzu zuzena



Kalitatezko muntaiak



(I+D) Ikerketa eta garapena






Fabrika Zentrala

Irtenbide  
aproposena!


- Kalitatea
- Prezioa
- Zerbitzua
- Garantia

Kataide poligonoa, 4. pabilioia.  
Tfnoa: 77 01 57 ARRASATE



## ■ Jesus Larrañaga

### ARRASATEKO KOOPERATIBISMOAREN SORTZAILEETARIKOA




**1** 926ko azaroaren 18an jaio zen baina ez daki zein horoskopoa seinukoa den. 70 urte ditu eta lau alaba. Kooperatibismoaren sortzaileetarikoa bat izan zen eta gaur egun jubilatuta dagoen arren, ezer egin gabe ezin dela egon eta ICTEko lehendakaria da orain dela urtebetetik. Perito Industrial ikasketak egin zituen.

1. Zein da zure horoskopoa? Ez dakit.
2. Sinestuna zara? Bai.
3. Animalia bihurtzekotan? Txoria.
4. Zure akats bat/gauza on bat? Genioa/Borondatea.
5. Zerk lotsarazten zaitu? Gure herriko banaketak.
6. Amets bat? Nobelista bikaina izatea.
7. Zer kenduko zenuke mundutik? Pobrezia.
8. Gertakizun historiko bat? Fidel Castroren iraultza.
9. Nor miresten duzu? Jose Maria Arizmendiarrera.
10. Zeri diozu beldurra? Heriotzari.
11. Zertaz damutzen zara? Medikuek ez izateaz.
12. Negar egin duzun azken aldia? Ez dut gogoratzen.
13. Zer falta zaio Arrasateri? Lanpostuak eta enpresariak.
14. Eta zuri? Denbora.
15. Lanbidez aldatzekotan? Medikuek izango nintzateke.
16. Arrasateko gustoko toki bat? Portaloia.
17. Zein da esan bai, baina azkenean egin ez duzun gauza hori? Nobela ikaragarri bat idaztea.
18. Zein egunkari irakurtzen duzu? *El Mundo* eta *El Pais*.
19. Gustoko janari bat? Patata tortila.
20. Liburu on bat? *El Quijote*.
21. Filmerik onena/tzarrena? *Ciudadano Kane*/ez dakit.
22. Musika talderik onena/tzarrena? Ez dakit.
23. Telebistako programarik onena/tzarrena? Informatiboak/*Toma y Dada*.
24. Egin dizuten oparirik politena? Erloju bat.
25. Denbora librean zertan pasatzen duzu? Irakurtzen eta basoan.
26. Oporretarako toki bat? Gandia.
27. Etxeko lanik gorrotagarriena? Plantxa.
28. Gomendio bat? Aldamenekoarekin eskuzabala izan.
29. Zerbaitegatik emango zenuke bizitza? Bakea ekartzearen.
30. 200 milioi irabaziz gero? Zaila da esatea...

## BITTORI ERRETEGIA

Eguneko menua • Kartako menua  
Especialitateak: legatz kokotxak eta txuletak  
Araba Etorbidea, 3 ARRASATE Tel.: 79 55 82



Inazio Zuloaga, 2 • Tfel.: 79 80 50 • ARRASATE


Hurbildu zaituz  
eta dastatu gure  
ofi eta pastel  
bereziak!

**HITZALDIA: Hondarribia eta Irungo alardeen inguruko gertaerak: emakumeok badugu parte hartzeko eskubiderik?**

HIZLARIAK: Maider Larrañaga eta Idoia Santurtun (Bidasoa Aldeko Emakumeak)

Azaroak 27 (asteazkena), arratsaldeko 6etan • AEDko lokalean (Pablo Uranga, 4 behe)

ANTOLATZAILEAK:




Laguntzaileak:



ARRASATEKO UDALA





# JMA 55 urte munduko atepak zabaltzen

- 1942. urtean sortu zuen Alejandro Altunak.
- Giltzak egiten ditu eta mundu osoan saldu, batez ere Errusian, Alemanian eta estatuan. Estatuko liderra da eta lehenengoetarikoa Europan.
- 7.000 giltza modelo ditu eta egunero 700.000 inguru egiten dira.
- Konpetentziarik handiena EEBBan eta Italian dauka.
- Iazko fakturazioa 2.500 milioikoa izan zen.
- Bost langilerekin hasi zen, orain hamar urte 51 zituen eta gaur egun 115 dauzka.

- Italian konpetentziako enpresa bat erosi berri du eta urtarrilean lantegi berri bat irekiko du Mexikon, 15/20 langilerekin.
- Elkarte anonimoa da.
- Iaz ISO-9000 agiria jaso zuen.
- Zuzendaritza: Kontseilukide delegatuak, Jose Antonio Altuna eta Jose Mari Altuna. Gerentea, Jesus Mari Insunza. Zuzendari komertziala, Antton Quintana. Zuzendari finantzieroa, Javier Quintana. Salmenta burua, Miguel Angel Narbaiza. Exportazio zuzendaria, Jon Uriarte.

## Euskaldunak eta osasuna

### Intxaurrak

**E**zin aproposagoa urteko sasoi honetarako gaurko fruitua, udazkenean jasotzen da eta intxaurren gehien. Euskal Herrian asko eta ondo hartzen bada ere, ez da bertako zuhaitza, Asiatik ekarri zuten eta. Arbola bera egur one-

koa da, arotzen artean beneratan estimatua. Intxaurren garaua bitaminaz aberatsa da, eta bere hazitik ateratzen zaio olio, xaboia eta abar. Osagarri moduan, orriak, oskolak eta aleen azal berdeak garrantzia handia ematen diote intxaurre-

ri. Intxaurren egosia ona da azkordina (tuberkulosia), zauriak, erredurak, eta begietako mina osatzeko. Diabetesdunentzat ona da intxaurren hostoz egindako ura, odoleko nahiz garnuko azukrea gutxitu egiten du eta. ■

## Euskerien txokoa

### “Ongi etorri” euskerien txokora

**O**ngi etorri! irakurle hori zutabetxo honetara. Eskuak zabal-zabalik ditugula hartuko zaitugu aurretzentzen. Leiho txiki hau zabaldu dogu, hamabostien behin izan daizun zer ikasi eta zer kontau zure lagun, lankide, familiakide eta adiskidien artien... Euskeraz zelan egiten dogun berba, txarto esandakoak zuzendu, ondo zelan esan behar dogun, ez dakiguna-eta erabiltzen ikasi... helburu horixe dauko gure asmo honek.

Horretarako, berba, esaera edo dana-dalakoa hartu eta horixe jorratuko dogu.

Gaurkoan: oles egin edo agur egiteko pertsona bati edo batzuei, hauxe esango dautzegu: “ongi etorri”, (danok ederto asko erabiltzen doguna). Baina hau be esaten dau jendeak: “ongi etorria!” edo “ongi etorriak!” etxera.

Azken horiek txarto ei dauz, eta “ongi etorri” (edo ongi jin ekialdean) esan behar dogu beti: ongi etorri etxera, (aspaldiko laguna datorrenien), ongi etorri gure artera...

Etorriren sinonimoa: jin (Iparraldeko hainbat lekutan), erdu (Arrasaten-eta, baina testuinguru zehatza dauko; ikusiko dogu beste baten).


Oharra: oles egin edo aguregin (Ikus Santa Ageda kantuarren lehen bertseue). ■

**Karmelo Uribarren eta Joxe Ramon Agirreurreta**

## ■ Horoskopoa

- **Aries** Joan den astean eman zizuten musu zoragarria ezin ahaztu, ezta?
- **Taurus** Patxara handiegiaz zabiltza eta hori ez da ona.
- **Gemini** Ordenagailuaren hatzaparretatik ihesi beharra duzu.
- **Cancer** Zure maitearen begiradak lur jota uzten zaizu.
- **Leo** Hamaika aldiz gauza bera esan baina ez zara nekatzen.
- **Virgo** Gertu al zaude egun handiari aurre egiteko?
- **Libra** Inori ez diozu esan baina antzeman da triste ibili zarela.
- **Scorpio** Zure helburu bakarra ondo pasatzea da?
- **Sagittarius** Kilo gehiagotxo dituzula? Jendeari kasurik ere ez.
- **Capricorn** Kartoizkoa zara batzutan. Baduzu sentimendurik?
- **Aquarius** Zure ustez guztia da exotikoa baita lanera joatea ere.
- **Piscis** Azkenaldian ez zara familiar-tekoekin bildu. Bada garaia.

## ■ Gurutzegram



JUAN BAUTISTA AGORRIA

**Horizontalak** 1. Joko baten parte hartzen duena. 8. Emakumezkoa bere guraso-ekiko. 9. Latinezko esaldietan erabiltzen da. 10. Musika eskalako zazpigarren nota. 11. Erabat, guztiz. 13. Obal bihurtu. 15. Gogo. 16. (Ald.) Bete. 18. Edale. 20. Gertaera harri-garria.

**Bertikalak** 1. Mendizabal, AEDko dinamizatzailea. 2. Olibondo landaturiko saila. 3. Kristoren aurrekoren laburdura. 4. Lege edo ohitura bat indargabetu. 5. Nafarroa Behereko udalerrria. 6. (Ald.) Kalenturra. 7. Zezen zirikatu. 12. (Ald.) Pirinioetako mendirik altuena. 14. Ahaztu aditzaren infinitiboa. 17. Santurtziko bokalak. 19. (Ald.) Alfabetoko hamazortzi garren letraren izena.

**Horizontalak:** 1. Jokalari. 8. Alaba. 9. Ad. 10. Si. 11. Osoki. 13. Obalatu. 15. Nah. 16. (Ald.) Ase. 18. Edatun. 20. Izukari.  
**Bertikalak:** 1. Jaso. 2. Oihbadi. 3. K.A. 4. Abolitu. 5. Lasa. 6. (Ald.) Sukar. 7. Idi. 12. (Ald.) Ane. 10. 14. Ahaz. 17. Aul. 19. (Ald.) Ku.

# GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA

- Minbiziaren diagnostiko goiztiarra
- Menopausia
- Ekografia
- Haurdunaldiaren kontrola
- Mamografiak
- Zitologiak
- Bularreko patologiaren unitatea
- Etab.

*Profesionalen osatutako taldea emakumearen zerbitzura*

**Doktoreak:**  
**CRISTOBAL ESTOMBA GOMEZ MURGIENDO OTALORA RUIZ**



**Zerkaosteta, 17 etxabehea. ARRASATE Tel.: 79 20 18**





## Zigor Gazkez ATBn kantuan

Asko dira Lotsa Barik saiotik pasa diren famatuak, baina lasai, oraindik geratzen da bisita gehiagorik. Datorren astean adibidez, Zigor Gazkez kantariari egindako elkarrizketa eta bere abestiak entzuteko aukera izango da, beti bezala, asteartean 9.30etan.

## ATBk Argia Saria jaso du

Gaur banatu dira Lasarten aurtengo ARGIA sariak eta etxe honi, ATBri, horietako bat egokitu zaio. Epaimahaiaren iritziz, gaur egun komunikabideetan globaltasunari horrenbesteko garrantzia ematen zaion

momentuan herri telebistek hurbileko informazioari tratamendu egokia ematen jakin izan diotelako eta ikus-entzuleen artean toki bat lortu dutelako eman zaio saria ATBri bere produktu informatiboengatik.

## Arrasate Irratia

### EGUNERO

- 9.00 Albisteak
- 9.30 Goizoro magazina: aktualitateari lotutako gaiak, Arrasateko Akordeoi Lehiaketak eta Aita Menniko gazteendako zentro berria.
- 14.30 Bixau orduan

### ASTELEHENA

- 22.00 Caravanserai musika saioa.

### ASTEAZKENA

- 22.00 KK2A

### OSTEGUNA

- 21.00 Adi Egon gazteendako saioa.
- 22.00 Txerrendantza

### OSTIRALA

- 22.00 KGB informatika saioa.

### LARUNBATA

- 9.30 Jailarai umeendako saioa.
- 11.00 Zoroklasikoak musika klasikoak.

## ■ ATBko asteko programazioa

22 Ostirala	25 Astelehena	26 Asteartea	27 Asteazkena	28 Osteguna	29 Ostirala
13.35 Kukaratxa Motel (Errep.) 20/20.30/21.00 Berriak 21.30 Astebete Gaiak: Garibaiko autobus geltoki berria	13.35 Astebete (Errep.) 20/20.30/21.00 Berriak 21.30 Mondrasport	13.35 Mondrasport (Errep.) 20/20.30/21.00 Berriak 21.30 Lotsa Barik Gonbidatua: Zigor Gazkez	13.35 Lotsa Barik (Errep.) 20/20.30/21.00 Berriak 21.30 Antzerkia: Txatxilipurdiko antzerki tailerreko gazteen "Hau da gaztaroa!" antzezlanak.	13.35 Antzerkia (Errep.) 19.10 Kukaratxa Motel 20/20.30/21.00 Berriak 21.30 Kukaratxa Motel	13.35 Kukaratxa Motel (Errep.) 20/20.30/21.00 Berriak 21.30 Astebete




**L**iteratura apur bategiteko para da ematen du gaurko argazkiak, gizakiak aurreratu arren naturak bere hartan jarraitzeko joera duela esateko besterik ez bada ere.

Urbiako ikuspegi orokorra erakusten du gaineko argazkiak, Aitzgorriko bidetik aterata dago berau. Azkenaldian han izan bazarete, pista batzuk gora behera, ez duzue hain desberdin ikusiko, eta kontuan hartu 40 urte inguru badi-

tuela argazkiak.

Behar bada urtarogatik izan daiteke, baina argazkiari kontu apur bategaz begiratu gero, konturatuko zarete ez dela ez ardirik eta ezta zaldikorik agertzen. Bakar bat ere ez!

-----  
 Urtea: 1940, hamarkada.  
 Argazkia: J. M. Lasagabaster.



**LOGOPEDIA  
 ZENTRUA  
 ARRASATE**

**HIZKUNTZ ARAZOAK**

**HIZKETA ARAZOAK**

**AHOTS ARAZOAK**

**IRAKUR ETA IDATZ ARAZOAK**

Zurgin Kantoi, 3 - 1º Esk.  
 Tel.: 79 79 46 • ARRASATE



**Lehenengo urteurrena!**

**Yoar  
 oinetakoak**

Barrenkale, 9  
 Tfnoa: 76 22 86  
 BERGARA

Biteri, 13  
 Tfnoa: 79 21 71  
 ARRASATE

**KARLOS  
 Bitxitegia**



Biteri kalea, 13  
 ARRASATE  
 Tel.: 79 34 26



ARRASATE ERDIALDEKO  
MERKATAL ETA ZERBITZUEN ELKARTEA

**Arrasate erdian,  
Deba Garaiko merkatalgunerik  
handiengan, erosketak izen propioa du.**



Azaroaren 18tik  
urtarrilaren 4ra arte  
Arrasate erdiko 100  
komertzio eta zerbitzuek  
**AUTO BAT** dohainik  
lortzeko aukera ematen  
dizute.

**Etorri eta egiazta ezazu!!!**

Erdialdea bisitatzen duzunean  
aparkalekua erabil ezazu.  
Denok eskertuko dugu.



**Zein da zure ideia?  
Zenbat toki duzu?  
Zein aurrekontu duzu?**

**BERANGO** altzariak-en  
galdera hauen  
erantzuna aurkituko  
duzu, neurria  
egindako armairuetan  
gama zabalena  
eskainiz.

**10**  
urteko  
garantiarekin

**ALTZARIAK**  
**Berango**

**ERAKUSKETA**  
**Legarre Pabilioia, z/g**  
**Gipuzkoa etorbidea**  
**Tel.: 79 01 32**



# Mondeo

*Mondeo berria,  
sentimeneztat plazerra.*



**MUGARRI**

Araba etorbidea, z/g • ARRASATE • Tel.: 79 07 44 / 54